


# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko martxoaren 28a / 535. zenbakia



## GORLAKO IGOERA

**Domekan**  
**160 txirrindulari**  
**aldapan gora**

HAUTESKUNDEAK: 'BERGARA AURRERA' AURKEZTU DUTE/6 • ANTZERKIA: GOAZ TALDEA POL-POLEN/12

AZALA: IÑAKI ITURBE / JATORRIZKO ARGAZKIA: ANGEL RUIZ DE AZUA





**ANTIA**  
**HARATEGIA**  
Matxiategi 8  
BERGARA



**BOLU**  
**FRUTATEGIA**  
Aranerrika 3  
BERGARA



**GERMAN LETE**  
**ARRAINDEGIA**  
Oxirondo azoka  
BERGARA



**IMAZ**  
**HARATEGIA**  
Aranerrika 1  
BERGARA



**LETURIA**  
**JON MIRENA**  
**HARATEGIA**  
San Pedro 24  
BERGARA



**MERTXE**  
**OILASKOAK**  
Oxirondo azoka  
BERGARA

## OSAGAI **ONENAK** GURE KONTU



**MUJIKA**  
**HARATEGIA**  
Kalebarren 1  
ANTZUOLA

Prestatu, zuk prestatuko  
duzu ondoen,  
baina osagai onenak  
gurean eskuratu  
ahal izango dituzu:  
**zure herriko dendetan.**



**PRIMI**  
**ARRAINDEGIA**  
A. Fleming 5  
BERGARA



**SAN PEDRO**  
**FRUTATEGIA**  
San Pedro z/g  
BERGARA



**URCELAY**  
**HARATEGIA**  
Ibargarai 16  
BERGARA



**ZARAITZU**  
**ARTISAIA**  
Fraiskoizuri 3  
BERGARA



# ATREBENTZIAEZPADA/ Udari begira dietarik edo kirolik egitten hasten zara udaberriaxan?



**CASTI CORRAL**  
35 urte



**EDURNE ALDANA**  
66 urte



**JON RODRÍGUEZ**  
32 urte



**JULIAN MONTEALEGRE**  
70 urte



**JOSEFA ORTIZ**  
50 urte



**MAITE LAZKANO**  
23 urte

Ba, egixa esateko, urte guztian antzera samar ibiltzen naiz, udaberriaxan ez dot aparteko ezer egitten. Kirola urte osuan egitten dot eta jatekoa ez dot askorik zaintzen.

Egunero Mekolaldera jua-tzen naiz. Nahikua izango da, ala? Eta zelan sasoi-ko nagoen, ez daukat elikadur-askorik zaintzeko beharrik. Urte guztian antzera ibiltzen naiz.

Urte guztian berdin ibiltzen naiz, eta udaberriax datorrenian ez dot ezer apartekorik egitten. Kirola egiteko ohiturria daukat eta urtian zihar berdintsu jaten dot.

Nik neuk bizimodu bera egitten dot urte guztian. Pasiatzera askotan juaten naiz, baiña jan danetik jaten dot. Hori bai, ahalegintzen naiz 80 kilotik gora ez hartzen.

Nere gimnasia lana da, alde batetik bestera ibiltzia. Lanak sasoi-egoteko balio-xo dau, eta horrekin nahikua daukat. Jaterakuan ez daukat problemarik, berdintsu jarraitetan dot.

Ez dot ezer berezirik egitten, sasoi honetan dantzarekin jo eta ke ibiltzen naiz. Urte guztian antzera ibiltzen naiz. Baiña uste dut jeneralian jentia asko zaintzen dala sasoi honetan.

## TXALOAK ETATXISTUAK



**TXISTUAK SIMON ARRIETAKO HESIA** Simon Arrieta plazan, Kutxa ondoan, hesia jarri zuen Udalak, segurtasun kontuengatik. Ume asko dabil han, eta arriskua ekiditeko jarri zuen. Jarritako hesia, baina, ez zaio egokia iruditu irakurle bati. Aurreko baten umea hesira igota ikusi zuen, gorputz erdia kanpoaldera zuela. Umeei igotzeko aukera emango ez dien hesia jartzea proposatu nahi dio Udalari. /M.B.

## ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

KIROLAK /11

KULTURA /12

### Korrika Kulturala

Korrika iritsi birtartean, kultura ekitaldiak antolatu ditu herri batzordeak eguaztetik aurrera.

### Karate Txapelketa

Euskadiko Karate Txapelketa izango da bihar, zapatua, Labegaraletako kiroldegian, 16:30etik aurrera.

### Goaz antzerki taldea, gaur

Debako taldeak *Trabena-Txoua* antzezlan egingo du gaur, egubakoitza, 22:30ean, Pol-Pol tabernan.

## ASTEKODATUA

# 327

### HARPID E LORTU NAHI DITU 'EGUNKARIA'-K HERRIAN

Proiektu berriari ekiteko harpide kanpaina hasi dute *Egunkaria*-ko langileek. Herri bakoitzean kopuru jakin bat lortzeko ahaleginean dabilta. Bergaran 327 harpide egin nahi dituzte.

## BESTEKE SANA

**“Niretako telebistan egiten dudana jateko lana da. Hala ikusten dut, eta penagarria da ze izan izan zitekeen lan sortzailea eta polit askoa, baina hara joan eta egiten duzuna da Fagorrera doan egiten duena: hozkailuak. Nik neuk, hala banu, ETBri goitik beherako astindua emango nioke, rri-rra! Telebistan, sortu beharrean kopia egiten da eta horri erabat absurdoa derizot. ETB-1 katea publikoa eta euskaraz izanda, ez daukagu zertan audientziari begira egon, baina hor goian daudenak egunero-egunero audientziei begira daude, audientziak gora eta audientziak behera, beste telebista kateetatik datorrena kopia eta kopia, eta gaizki gainera. Guk geurea sortu beharrean eta gero saldu, guztiz kontrakoa egiten da. ASIER ALTUNA / Zinemagilea 'Putz'/03ko otsaila-martxo**

## BERAIEK DINOE/ Maite Aristegi



### Baserri gabeko bailara?

**D**ebagoieneko lurralde plana edo PTP aurkeztu berri da eta datorren urteotan gure luraren gainean egin beharrekoak erabakitzen baditu ere, astelehenean amaitzen da alegazioak egiteko epea.

Denon etorkizunerako hain garrantzitsua dena, isilpean eta azkar-azkar pasatu nahian bezala. Lurra, batik bat ona, eskas dugun baliabidea izanik, baserriarrok urtetan dihardugu eskatzen bere antolaketa egoki bat, sektore guztien dako lekua egingo duena. Eta egia esanda, Plan honek burla garbi egiten digu. Makina bat lekutatik heldu ahal bazaio ere, alderdi bat baino ez dut ukituko. Sekula baino gehiago, lurra, eraikitze-ko "zoru" bezala ikusten du. Eta gainean ditugun azpiegitura izugarriak gutxi bایلiran (pentsa autopista berriak hartzen dituen lurak eta AHT egingo balitz izorratuko lituzkeenak) gelditzen diren ia lurrik onenak hartu eta

besterik gabe industriguneak, aberatsendako etxeak edota aisirako Disneylandia antzekoak egiteko izendatzen ditu. Gaur egun baserri hutsetik bizigaren banakak (asko inbertsio izugarriak egindakoak) betirako zulora. Zela edo hala baserria eusten ari diren hainbat,

berdin. Baina ez bakarrik baserriarroi; Plan honek gizarte osoari egiten dio burla. Norendako egin nahi dira hainbeste etxebizitz berri, lehendik milaka hutsik ditugunean? Zer interes sozial dute aisialdirako instala-

kuntza izugarri horiek, lehendik, askotan baserri lanari esker, espartzimendurako balio duten zonalde zaindu eta txukunak ditugunean? Denbora librean ere dena ordainduta egin behar dugu ala? Lur barik, ez dago baserririk. Lehen sektore barik, jatekorik barik ez dago herririk. Jatekoa kanpotik ekarrita ere, ez behintzat herri sano eta orekaturik. Baserririk gabeko bailara bat izan nahi dugu?

**“PTPk burla egiten digu. Sekula baino gehiago, lurra, eraikitze-ko 'zoru' bezala ikusten du”**

**Berrigara**

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA  
Edu Mendibil  
ERREDAKZIOA  
Monika Belastegi,  
Aintzane Irizar  
MAKETAZIOA  
Inaki Iturbe

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga  
KOLABORATZAILAK  
Luis Mari Agirre  
Maitane Arizabaleta  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkoroberebizar

LEGE-GORDAILUA  
SS-50/91  
ISSN  
1130-6599  
TIRADA  
5.900 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zehitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala



**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 28**  
CAMACHO. Oxirondo 4..... 943 76 11 74
- ZAPATUA, 29**  
PUY. Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- DOMEKA, 30**  
PUY. Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- ASTELEHENA, 31**  
GUALLAR. San Antonio 5..... 943 76 11 05
- MARTITZENA, 1**  
ESTELLA. Matxiategi 5..... 943 76 19 63
- EGUAZTENA, 2**  
MOZOS. San Pedro 4..... 943 76 12 15
- EGUENA, 3**  
CAMACHO. Oxirondo 4..... 943 76 11 74

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda)..... 943 76 24 40
  - Bergarako Udaltzaingoa..... 943 77 91 06
  - Antzuolako Udaltzaingoa..... 943 76 62 46
  - Ertzaintza..... 943 76 53 40
  - Osasun etxea..... 943 76 24 40
  - Asepeyo..... 943 76 16 43
  - Pakea..... 943 76 13 49
  - Angiozarko medikua..... 943 78 90 27
  - Antzuolako medikua..... 943 76 62 23
  - Odol emalleak..... 943 76 16 24
  - Alkoholiko Anonimoak..... 943 76 51 06
- GARRAIOAK**
- Taxiak..... 943 76 19 50
- UDALA**
- Bergarako Udaletxea..... 943 77 91 00
  - Antzuolako Udaletxea..... 943 76 62 46
  - Udal Artxiboa..... 943 77 91 32
  - Igerilekuak..... 943 76 20 51
  - Kultura etxea..... 943 77 91 58
  - Liburutegia..... 943 77 91 62
  - Kiroldegia..... 943 76 56 41
  - Mizpirualde egoitza..... 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
- Epaitegia..... 943 76 14 92
  - Erregistroa..... 943 76 13 15
  - Jardun..... 943 76 36 61
  - Idolaz..... 943 76 65 08
  - Erretiratuen etxea. Bergara..... 943 76 21 40
  - Antzuolako erretiratuen elk..... 943 76 62 71
  - Postetxea..... 943 76 26 85
  - Bedelkar..... 943 76 04 68
  - Akulu AEK..... 943 76 05 18
  - Udal Euskaltegia..... 943 76 44 53
  - Bergarako notariotza..... 943 76 10 73

**MEZAK**

- |   |  |
|---|--|
| <b>San Pedro</b><br>Domekak:<br>09:30, 12:30.<br>Zapatuak eta lanegunak:<br>19:00.      | <b>Labegaraieta</b><br>Domekak: 11:00.<br><b>San Lorentzo</b><br>Zapatuak: 20:00.<br><b>Angiozar</b><br>Domekak: 11:30.      |
| <b>Sierbak</b><br>Lanegunak: 19:15.<br>Zapatuak:<br>19:00.<br>Domekak:<br>11:30, 13:00. | <b>Moja Zaharrak</b><br>Lanegunak: 09:00.<br>Zapatuak: 11:00.<br><b>Mizpirualde</b><br>Lanegunak: 11:45.<br>Zapatuak: 17:30. |
| <b>Osintxu</b><br>Domekak: 12:30.<br>Zapatuak: 19:00.                                   | <b>Antzuola</b><br>Domekak:<br>09:00, 11:30.<br>Zapatuak eta lanegunak: 19:30.   |
| <b>Elosu</b><br>Domekak: 10:30.   | <b>Uzarraga</b><br>Domekak: 10:00.   |
| <b>Ubera</b><br>Domekak: 10:30.   | <b>Elgeta</b><br>Lanegunak: 09:00.<br>Zapatuak: 19:30.   |
| <b>San Juan</b><br>Domekak: 11:00.  | <b>Elorregi</b><br>Domekak: 10:30.   |
- URTE-MEZAK**
- Santa Marina (Sierbetan)**  
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**  
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

**OHARRAK**

- JOSU CIFUENTESEN ALDEKO ZOZKETA**  
Josu Cifuentes gaztetxoak jaso behar duen tratamendu ordaintzen laguntzeko, hiru saski zozketatuko dituzte. Txartelak herriko tabernetan daude salgai.
- 1975EAN JAIOTAKOAK**  
1975ean jaiotako bazkaria hilaren 12an Txarrantxan. Izenematea, Kutzan (20 euro), San Martin plazan.
- 1965EAN JAIOTAKOAK**  
1965ean jaiotako afaria apirilaren 26an. Izenematea, Etxagi, Popis eta Pol-Pol tabernetan.

- ODOL ATERATZEA**  
Odol ateratzea egingo dute eguaztenean, hilaren 2an, Seminarioan, 18:30ean.
- LANGILEENDAKO IKASTAROK MIGUEL ALTUNAN**  
Miguel Altuna Institutuak langileendako bi ikastaro antolatu ditu: batetik, barneratze bidezko elektrohigadura ikastaroa; eta, bestetik, harizko elektrohigadura ikastaroa. Argibideak: 943 76 24 91.
- XIPIZARO LUDOTEKA**  
Xipizaro ludotekak begiraleak behar ditu udalekuei begira. Izenematea apirilaren 11ra arte zabalik. Argibideak: 943 76 23 76.

**JARDUNENAGENDA**

**ASTE BUKAERAKO JARDUERAK**  
Txapliguko gaztetxoek antzinako jolasak izango dituzte bihar, zapatua, Arrizurin, 16:00etan. Domekan, ordu eta toki berean, zapi-jolasa. Txiskrilabi taldekoek, berriz, txorimaloak egingo dituzte bihar, zapatua, Udal Euskaltegian, 16:00etan. Txorimalo Lehiaketarako izenematea, Jardunen (943 76 08 19).

**URBANOENORDUTEGIA**

**San Lorentzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN**

**Kirolerako dirulaguntzak banatzeko araudi berria**

Herriko kirolariei eta kirol taldeei dirulaguntzak emateko araudi berria onartu zuen Udalak 1993ko martxoan. Oinarrizko kirola eta kirol federatua bultzatzea zen helburuetako bat. Udalak irizpide batzuk finkatu zituen kirolerako dirulaguntzak banatzeko.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

**“Arrataria”**

Erropan egindako urratua, tarratada. —Alanbrian katiata arrataria ein jat ipurdixan.



**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Eguena, 20	<b>-1°C</b>
<b>MAXIMOA</b> Astelehena, 24	<b>24°C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m²)</b>	<b>0 L</b>

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 19	21°C	-1°C	- l/m²
Eguena, 20	16°C	-1°C	- l/m²
Egubakoitza, 21	18°C	-1°C	- l/m²
Zapatua, 22	19°C	5°C	- l/m²
Domeka, 23	22°C	11°C	- l/m²
Astelehena, 24	24°C	6°C	- l/m²
Martitza, 25	22°C	5°C	- l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

**ASTEKOFILMAK**

**‘EL JARDÍN DE LA ALEGRÍA’**

ZUZENDARIA: NIGEL COLE. AKTOREAK: BRENDA BLETHYN, CRAIG FERGUSON.

**HARIA.** Grace Trevethyn alargun gelditu da eta diru barik dago, zorrek. Egoera larria da, eta Mathew lorzainaren laguntzarekin marihuana landatuko du...

**TOKIA ETA ORDUA.** Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (ikuslearen eguna).

PUNTAZIOA: ●●●●●

**‘SPY KIDS 2’**

ZUZENDARIA: ROBERT RODRIGUEZ. AKTOREAK: ANTONIO BANDERAS, CARLA GUGINO, DARYL SABARA.

**HARIA.** Carmen eta Juni espioi gaztetxoak abentura gehiagorekin itzuli dira. Giggles familiako umeak ere espioiak dira eta Cortez familiako etsai bihurtuko dira. Bestalde, amets galduen uhartean zientzialari ero bat izaki bel-durgarriak sortzen dabil...

**TOKIA ETA ORDUA.** Zapatuan eta domekan, 17:00etan.

PUNTAZIOA: ●●●●●

**‘DOMINGO SANGRIENTO’**

ZUZENDARIA: PAUL GREENGRASS. AKTOREAK: JAMES NESBITT, TIM PIGGOT-SMITH.

**HARIA.** Erresuma Batuko armadak 1972ko urtarrilean tirobat disolbatu zuen manifestazio bat Irlandan, eta 13 lagun hil ziren. Orduko gertakarien gaineko film ma egin du Paul Greengrass zuzendariak. Donostiako Zine-maldian harrera beroa izan zuten...

**TOKIA ETA ORDUA.** Eguenean (apirilak 3), 20:00etan. Zinekluba.

PUNTAZIOA: ●●●●●

**OGIZUN**  
koop. elk.  
**okindegia**

San Pedro 21 BERGARA 943 76 20 49

Ibargarai 44-46 BERGARA 943 76 45 53

Zubillaga 10 OÑATI 943 78 24 13

**Aldoka Maldoka**

**TABERNA**

Kruz Gallastegi BERGARA



**EUSKARA/** Kilometrorik erosi ez duenak oraindik badu aukera: martxoaren 31n, astelehenean, itxiko dute kilometroak erosteko epea

# Korrika 13ren atarian, ekitaldi ugari eguaztenean hasi eta domekara bitartean

MONIKA BELASTEGI

Apirilaren 6an helduko da Korrika 13 herrira. Bien bitartean eta giroa prestatzeko asmoz, hainbat ekitaldi antolatu ditu herriko Korrika batzordeak, eguaztenean hasi eta apirilaren 6ra bitartean. Besteak beste, Korrika Txikia egingo dute herriko gaztetxoek.

Hamasei kilometro dagozkie Bergarari, Osintxun hasi eta Elorregirairi. Akulu AEK euskaltegiko arduradunen esanetan, kilometroak erosteko epea amaitu den zurrumurrua zabaldu da herrian, baina hori horrela ez dela aurreratu dute: "Epea datorren astelehenean itxiko da, martxoaren 31n, hain justu ere. Eta martitzenean, apirilaren 1ean, kilometroen zozketa egingo dugu. 18:30ean izango da, kultura etxean. Horrela, talde bakoitzak zein tarte korrika egitea tokatu zaion jakingo du".

Korrikako kilometroak erosteko Arrasateko AEK euskaltegira jo behar da. Han erositako kilometroari dagokion peto zenbakia emango diote erosleari, baita dirua sartzeko kontu-korronte zenbakia ere. Kilometroak 300 euro balio du eta dirua esandako kontu-korrontean sartzerakoan petoaren zenbakia eman behar da.

Apirilaren 6an, domekan, ailegatu da Korrika 13 herrira. 15:43 aldera helduko da, Osintxura, eta 17:04 aldera Oñatikoei emango diete lekua, Elorregin.

## HERRIAN BARRENAKO IBILBIDEA

Herrian barrena egingo duen ibilbidea hauxe da: Osintxutik datorrela, Amillaga aldera hartuko du, handik igerilekuetarantz abia-



ARTXIBOA

Korrika 15:43 aldera sartuko da Osintxutik; San Martin plazara 16:27 aldera helduko da eta 17:04etan Elorregira.

## Korrika Kulturalaren egitaraua

### APIRILAK 2, eguaztena

**19:00:** Hitzaldia: *Zer ekarri diote emakumeek euskarari?* Hizlaria: Idoia Fernández, EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientziako Fakultateko irakaslea. Kultura etxean.  
**17:30:** Euskal Herriko kantari famatu batzuen eta herriko neska-mutikoen arteko areto futbol partidua, Seminarioko patioan.

### APIRILAK 4, egubakoitza

**15:30:** Korrika Txikia. San Martin Ikastetxe-ko eta Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastoletako umeek egingo dute.

### APIRILAK 6, domeka

**12:30:** Udala Musika Bandaren emanaldia, Udala Pilotalekuan.  
**13:00:** Herri bazkaria. Eguraldi onarekin, San Martin plazan; euria egiten badu, Seminarioko patio estalian.  
**15:45:** Korrika herrian barrena.  
**17:30:** Auskalo taldearen ikuskizuna umeendako: puzgarri eta txapa, artilezko kometa eta makillaje lantegiak egongo dira. Eguraldi onarekin San Martin plazan izango da eta euria egiten badu, Udala Pilotalekuan.

tuko da eta hilerri paretik pasatu ondoren Santa Marina eliza ostetik pilotalekurantz hartuko du. Handik Kruz Gallastegi kalean gora egingo du eta gero Barrenkaletik San Martin plazara iritsiko da, 16:27 aldera. Bidekurutzetatik jarraituko du Espolirantz eta ertzain etxe berrian saihesbidea hartuko du Elorregiraino.

### ETA KORRIKA HELDU BITARTEAN...

Korrika 13 heldu bitartean hainbat ekitaldi antolatu ditu herriko Korrika batzordeak Korrika Kulturalaren barruan (ikus azpiko taula).

Apirilaren 4an Korrika Txikia egingo da, esaterako. Aranzadi Ikastolako, Mariaren Lagundia Ikastolako eta San Martin Ikastetxe-ko ikasleek -Haur Hezkuntzako eta DBHko ikasleek- egingo dute korrika. 15:20an abiatuko da, San Martin Ikastetxetik; Santa Marina osteko semaforoan Aranzadikoak lotuko zaizkio eta Arrizuri jauregian Mariaren Lagundikoak. San Martin plazan amaituko da eta han Korrikaren kantua abestuko dute megafoniarekin lagunduta.

Horrez gainera, Udala Musika Bandak apirilaren 13rako iragarrita zuen hileroko kontzertua apirilaren 6ra aurreratu du, Korrikarekin bat egiteko. Egitarauan, gainera, Korrika 13ren doinua joko dute.

Bestetik, herri bazkaria izango da apirilaren 6an. Txartelak salgai daude dagoeneko Pol-Pol, Kortazar eta Arrano tabernetan eta AEK euskaltegian, 15 euroren truke.

Horrez guztiaz gainera, Korrikaren egunean materiala salgai jarriko dute AEK-ko kideek San Martin plazan.

## Igerilekua zabaldu zuten astelehenean

MONIKA BELASTEGI


Aurreko astean iragarri zuten moduan, behin-behineko kanpoko igerileku txiki estalia astelehenean zabaldu zuten. Dagoeneko hainbat erabiltzaile hurbildu dira instalazio egokitu berrira, eta eskoletako neska-mutikoen ikastaroak hasi dira, argazkian ikusten denez.

Aste osoa egongo da zabalik: astelehenean egubakoitzera, 07:00etatik 21:00etara, eta zapatuetan eta domeketan, 09:00etatik 19:00etara. Zerbitzu berriak eskainiko duen berritasunetako bat,

gainera, horixe da, domeka arratsalde zabalik egongo dela. Lehen itxita egoten ziren igerilekuak arratsaldez. Horrez gain, gogoratu sarrera ere aldatu egin dute. Sarrera berria Ipintza Institutuko patiotik du.

### EZUSTEKOA ZAPATU GOIZEAN

Zapatuan, igerilekuetako langileetako bat igerilekura joan zenean, 08:00ak aldera, aulkiak eta bestelako materiala igerilekuaren barruan aurkitu zituen. Ezezagun batzuk igerilekuko estalkiaren sokak apurtu ondoren sartu ziren barrura.



EDU MENDIBIL

Ikastetxeetako neska-mutikoak hasi dira berriz igeriketa ikastaroetan.



**HAUTESKUNA/** Maiatzaren 25ean parte hartu ahal izateko 'Baietz 501 sinadura' kanpainari ekingo diote

# Bergara Aurrera hautesle elkarteak hauteskundeetara aurkezteko asmoa du

MONIKA BELASTEGI

...ta segi aurrera plataformak hartutako konpromisoak bete ahal izateko eratu dute hainbat lagunek Bergara Aurrera (BA) hautesle elkarte. Udal hauteskundeetara aurkezteko asmoa dute, baina horretarako 501 herritarren sinadura beharko dute.

Martitzenean aurkeztu zuten Bergara Aurrera hautesle elkarte, kultura etxean. Prentsaurrekoan azaldutakoaren arabera, ...ta segi aurrera herri plataformak hartutako konpromisoak gauzatu nahi dituzte, eta horretarako maiatzaren 25eko udal hauteskundeetara aurkeztuko direla gehitu zuten.

Hilabete pasatu da hainbat herritarrek ...ta segi aurrera plataforma aurkeztu zutela. Aurkezpen hartan, Euskal Herriak bizi duen egoera dela-eta plataformaren lan ildoak hiru ardatzetan kokatu zuten: egoera ez demokratikoaren aitortzea, autodeterminazioaren aldeko apustuan eta ezkerreko ikuspegian.

Hilabeteko ibilbide horretan ...ta segi aurrerak antolatutako hitzaldi, mobilizazio eta bestelako ekimenekin, "erreferentzialtasun bat lortu dugu herrian, baina orain beste urrats bat ematera goaz, eta hauteskundeetan parte hartzeko erabakia hartu dugu".



Jose Luis Elkoro, Maite Aristegi, Mikel Eguren, Itsaso Mendizabal eta Jesus Mari Garitano aurkezpenean.

MONIKA BELASTEGI

*...ta segi aurrera taldeak hartutako konpromisoak gauzatu nahi dituzte*

*Horretarako, maiatzeko hauteskundeetan hartuko du parte Bergara Aurrerak*

*Hauteskundeetan parte hartu ahal izateko 501 herritarren sinadura behar dute*

Datozen Udal hauteskundeetan gainean azaldu zuten, "inondik inora normalizatuta ez dagoen egoera baten kokatu behar dira, eta komunikabideak ixteak, hainbat herritarrek jasandako torturek eta erakunde politiko bat legez kanpo uzteak zalantzan jartzen dute hauteskunde horien izaera demokratikoa".

Gauzak horrela, ...ta segi aurrera plataforma sortu zuten planteatutako kezkek areagotu egin direla adierazi zuten: "Eta hartutako konpromisoak heldu ahal izateko hartu dugu hauteskundeetan parte hartzeko erabakia, betiere argi lagata erabaki hori herritik sortutako zerbait dela, plataformaren sorrera izan zen moduan".

## 'BAIETZ 501 SINADURA', APIRILAREN 1ETIK 16RA BITARTEKO KANPAINA

Udal hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko 501 herritarren sinadura beharko du Bergara Aurrerak. Horretarako *Baietz 501 sinadura* kanpainari ekingo diote apirilaren 1ean, 16ra arte. Hori horrela, dei egin zieten herritar guztiei "hautesle guztien eskubideak bermatzeko" sinadura eman dezaten. "Izan ere, bizi dugun salbuespen egoeran bergarar guztiok ez ditugu eskubide berberak eta horrelako herri ekimen batekin ez dira erakunde jakin baten eskubideak bakarrik defendatzen, hemen bergarar guztion eskubideak daude jokoan".



## Herritar asko gerraren aurkako mobilizazioetan

Hainbat herritarrek egin zuten bat martitzenean gerraren aurka sindikatuek deitutako ordubeteko lanuztearekin. ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE, ELB eta HIRU sindikatuek egin zuten deialdia, eta, lanuzteaz gain, elkarretaratzea ere egin zuten hainbat herritarrek eguerdian San Martin plazan, Oxel Erostarbek ateratako argazkian ikusten denez.

## LABUR

### BSAek "elektoralistatzat" jo dute San Antonioko etxeen inaugurazio ekitaldia

Sozialista Abertzaleen esanetan, 99ko hauteskunde ondoan Udal gobernua osatzeko negoziaketetan EHk ezinbestekotzat jo zuten besteak beste, bi konpromiso hartzea: babestutako etxeak bultzatzea eta alokairua bultzatzeko Udal bulegoa irekitzea. "Baina aurrekontuak onartzeko orduan berriz jarri behar izan genuen baldintza moduan alokairua bultzatzeko bulegoa zabaltzea, EAJ-Earen ordura arteko jarrera ikusita". Lau urte pasatu dira, "baina San Antonioko babestutako etxeak besterik ez dute egin, eta Ozaetan beste batzuk egiteko hitzarmena sinatu". Hori horrela, "elektoralista" iruditzen zaie San Antonioko etxeen inaugurazio ekitaldia.

### Euskal Herrian Euskaraz-ek elkarretaratzea antolatu du epaitegi aurrean bihar, zapatua

Euskaldunon hizkuntza eskubideak aldarrikatzea eta epaitegian gertatzen den hizkuntza eskubideen zapalkuntza salatzea du helburu. Bihar, zapatua, izango da, 12:30ean, epaitegiaren aurrean.

### 'Zure finantza entitatearekin lan egin I eta II' ikastaroa egingo dute KZGunean

Gai beraren gaineko bi ikastaro izango dira: bata, martxoaren 31n eta apirilaren 1ean, 18:00etatik 20:00etara; bestea, apirilaren 14an eta 15ean, 11:00etatik 13:00etara. Kutxek eskaintako oinarriko zerbitzuak azalduko dituzte. Izena emateko epea zabalik dago.



## Gipuzkoako errepideen maketak apirilaren 5era arte

MONIKA BELASTEGI

Joan den astelehena ezker dago ikusgai erakusketa. Foru Aldundiak prestatu du eta Gipuzkoako errepide sareko hamabi proiekturen maketak daude, Ekialdeko saihebidetartean.

Erakusketa horren bitartez Errepide Departamentuak azken urteotan azpiegituren eredu eramangarria eraikitzeke egin duen lana erakustea du helburu Foru Aldundiak.

Aldundiko iturrien esanetan, Errepide Departamentuak mugikortasun iraunkorra diseinatzearen eta kudeatzearen alde egin du, lurraldearen eta herritarren garapen ekonomiko eta soziala lortzeko, horretarako kanpoko nahiz barruko komunikabideen


kalitatea eta bide segurtasuna hobetuta.

Hamabi maketak eta hainbat argazki osatzen dute erakusketa, nahiz eta esku programan hamalau maketaren gaineko informazioa egon. Maketa bakoitza errepide bati dagokio eta, lagungarri gisa, azalpen panelak egongo dira.

Maketok osoko bilkuren aretoan daude ikusgai, 18:00etatik 20:00etara. Erakusketa astelehenean ireki zuten eta apirilaren 5era arte egongo da ikusgai.

### BERGARAKO EKIALDEKO SAIHEBIDEA

Maketan artean Bergarari dagokion bat dago: ekialdeko saihebidetartean, hain justu ere, nahiz eta bukatuta dagoen. Maketarekin batera dagoen informazio panelak saihebidetartean gaineko zehaztasunak ematen ditu.



MONIKA BELASTEGI

Hamalau maketa eta bakoitzaren gaineko azalpenak daude erakusketan.



### Grafitiak herriko hainbat frontoitan

Azken hilabeteen erdialdeko hiru frontoitan grafitiak azaldu dira. Boluko, Torrekuako eta Artzamendiko frontoien bi partetan margotu dituzte grafitiak.

Udaltzaingoaren esanetan, margolariek gauze egin dute lan, eta goizean margo pote hutsak besterik ez dute aurkitu bertan lagata.

## ELKARRIZKETA

AITOR GANTXEGI/EUSKALDUNON EGUNKARIA-KO KOMERTZIALA

# “Langileok nahi dugu proiektu berriak ‘Egunkaria’-ren oinarri berak izatea”

MONIKA BELASTEGI

**K**omertzial ziharduen *Egunkaria*-n, baina itxi zutenetik beste zeregin batzuetan dihardu Aitor Gantxegik. Proiektu berria abiatzeko ahaleginean, horren alde lan egingo duen batzordea eratzen dihardu herrian.

### Egunkaria-ren aldeko batzordea antolatu duzue herrian. Zein helbururekin?

Batetik, bertara hurbiltzen diren herritarrei *Egunkaria*-ren kontua zelan doan azaltzeko, hau da, informazioa emateko; bestetik, herriko taldeek *Egunkaria*-ren alde antola ditzaketan ekitaldiak koordinatzeko; eta hirugarrenik, *Egunero*-ren eta etorkizunean etorriko den proiektuaren alde dirua batzea, indar berezia jarriz harpidetza kanpainan. Izan ere, orain *Egunero*-ren harpide egingo dena gero etorriko den egunkariaren harpide izango da.

### Herri bakoitzean harpide kopuru jakin bat lortzeko helburua duzue.

Bergaran 327 harpidetza berri lortu nahi ditugu. Kopuru hori jarri da kontuan hartuta herri bakoitzean zenbat euskaldun alfabetatu eta adinez nagusi dagoen, besteak beste.

Herri bakoitzean jarritako harpide kopurua lortuz gero, Euskal Herri osoan 10.000 harpide inguru lortuko ditugu, eta, horrela balitz, sortu nahi dugun egunkari berria aurrera eramateko oinarria izango genuke.

### Zelan dago antolatuta Bergarako herri batzordea?

Oraingoz euskalgintzako eragileek, ikastetxeek eta nik neuk *Egunkaria*-ko langile bezala osatzen dugu. Hasierako lana talde txikian egitea hobe zela pentsatu genuen, eta horren ondoren herrira zabaldu.


### Zein da zuen lan ildo?

Aurreko astean kultura taldeen, elkarte gastronomikoen eta kirol taldeen ordezkariekin elkartu ginen. Herri batzordea zer den eta zertarako sortu den azaldu genien. Izan ere, ahalik eta herritar gehienengana iritsi nahi dugu, eta talde horiek jende asko batzen dutenez, ordezkarien bitartez gure ahotsa eurengana iristea nahi dugu.

Horrez gain, zapatuetan mahaia jartzen dugu plazan: *Egunkaria*-ren materiala saltzen dugu; harpidetza txartelak izaten ditugu; bai eta 50 eta 300 euroko bono-laguntzak ere.

### Batzordetik kanpoko proposamenik jaso duzue?

Bai, hainbat ekitaldi antolatzeko proposamena jaso dugu.



MONIKA BELASTEGI

*“Guztira 10.000 harpide behar ditugu proiektuari oinarria jartzeko; Bergaran, 327”*

*“Herritarrei dei egiten diegu hilaren 3an batzordeak egingo duen batzarrerera joateko”*

Gaztetxeak, esaterako, apirilaren 5erako *Egunkaria*-ren aldeko eguna antolatu du, eta Erramu-zapaturako ere zerbait prestatzen dihardugu.

Horrez gain, apirilaren 3an batzar zabalagoa egingo dugu, kultura etxean, 18:30ean. Herritar guztiei zabalik dago eta asmoa da herri batzordea herritarrengana hurbiltzea, euskalgintzatik kanpora ere zabaltzea.

### Zein harrera izan du Egunero-k herrian?

Ez daukat daturik. Euskal Herrian hasierako egunetako berotasunean 60.000 ale saldu izan dira. Orain epeldu egin da pixka bat gauza, eta 30.000 ale saltzen ditugu egunero; lehengoaren bikoitza.

Bestalde, harpidetzari dagokionez, kupoi asko jasotzen ditugu Andoainen.

### Proiektu berria zelan dago?


Badihardugu, baina oraingoz egunkari berria kaleratzeko egunik ez dago. Langileok ere lehenbailehen izatea nahi dugu, lehengora bueltatzeko, baina egunik ez dago. Langileok, edozelan ere, argi duguna da proiektu berriak *Euskaldunon Egunkaria*-ren oinarri berberak izan behar dituela. Hau da, euskalduna eta euskaltzalea, nazionala, baterakoia, zabala, independentea alderdi politikoetatik, independentea erdarazko komunikabideetatik, ez instituzionala, diruz lagundua, militantea, profesionala eta berria.

*Euskaldunon Egunkaria* sortu zen hutsune bat betetzeko, hau da, euskarazko eguneroko prentsarik ez zegoelako, eta orain dela hamahiru urteko oinarri haiek balizkoak dira gaur egun ere.



## POL-POLEKO BETERANOEN IRTEERA

**P**ol-Pol Mendizale Taldeko beteranoek urteko bigarren irteera egin zuten domekan, martxoaren 23an. Guztira 40 lagunek hartu zuten parte goizean eginiko irteeran. Besteak beste, Otxandio ondoko Olaetan, Anbotopeko Zabalaundin eta Larranon izan ziren, eta handik Axpera jaitsi ziren. Eguraldia lagun, primeran pasatu zuten goiza lagunartean, eta bazkaltzera herrira bueltatu ziren. Hurrengo irteera apirilaren 27an egingo dute Angiano-San Millanera eta maiatzeko zubirako Gredosera lau eguneko irteera prestatzen dihardute. Hilean behin irteeratxo bat egiten dute Pol-Polekoek. Sasoi betean daude gure mendizale beteranoak... Eutsi horri, koadrila!!!



## TXUKUNTZE LANAK SANTA MARINAKO FATXADAN

**S**anta Marinako parrokia zaharberritzeko lanekin jarraitzen du Restauraciones Siglo XXI enpresak. Jakingo duzenez, 2002ko uztailean itxi zuten eliza eta aurtengo udarako lan guztiak amaituta izatea espero dute. Egunotan portiko aldeko fatxada berritzeko lanak egiten dabilta eta aldarnioak jarri dituzte, argazkian ikusten denez. Besteak beste, eliza barruko erretaulak zaharberritzen dihardute teknikoek.

## GIMNASTAK, LEHEN POSTUETAN

**Z**apatu arratsaldean Gipuzkoako Eskola Arteko Gimnasia Erritmiko Txapelketa jokatu zen Labegarrietako kiroldegian. Infantil mailako proban, Sarai Gallego Ipintza Institutuko ordezkariek lehen postua eskuratu zuen pilotako ariketan eta, era berean, Aranzadi Ikastolako Irati Arteaga lehena izan genuen mazoekin, kadete mailan. Ikusle dezente batu ziren gimnasten saioak ikusteko. Arteagak eta Gallegok Gipuzkoako Txapelketako finala izango dute maiatzaren erdian. Horren aurretik, Ariznoako gimnastek Eskola Arteko B mailako finalak izango dituzte Azkoitian. Ariznoa Gimnasia Erritmiko Taldeak primerako harrobia duela erakutsi du azken urteotan. Sonia Corredera entrenatzailearen aginduetara gogor entrenatzen jarraitzen dute eta ordainetan emaitza bikainak jasotzen dituzte...

# AZPEITXI

*Jatetxea*

Aranerreka 13 behe. Bergara  
943 76 55 00



## JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95

**IRURAK MARGOAK**  
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak	Paper pintatuak
Moketa eta sintasola	Harea zorrotada
Iztuku esponjatua	Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara  
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32



MINGAINARITIRAKA



Felix Irizar

UDALEKO BRIGADAKO LANGILEA

Udaleko Brigadan dihardu lanean Felix Irizarrek azken bost urteotan. 33 urte dauzka eta UBI ikasi eta gero, 19 urterekin, lanean hasi zen, obretan. Athleticzale amorratua, Herri Norte lagunarteko kide da.

Laneko gauzarik onena eta txarrena?

Onena, kalean lan egitea; txarrena, eguraldia kaskarra denean.

Lanbidez aldatzekotan, zer?

Ba, operako abeslari izateko ametsa izan dut beti.

Dutxan abesten duzu, ala?

Ez, baina lanean hasten naiz batzuetan kantuan...

Udaberriko gauzarik onena?

Eguraldia, koloreak... Barruan ere beste alaitasun bat daukat negua bukatutakoan.

Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Neskalagunarekin, lagunekin eta familiarekin ondo egoteari.

Miresten duzun pertsonaia bat.

Che Guevara betidanik gustatu zait.

Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?

Irakurtzea, batez ere.

Parrandazalea zara? Parrandarako toki bat?

Izan naiz, baina gero eta gutxiago... Edozein toki da ona.

Janari eta edari bana?

Mingaina saltsan eta garagardoa.

Sukaldari ona zara?

Nik baietz esango nuke, baina hobe besteek esatea...

Egunkarian irakurtzen duzun lehenbiziko gauza?

Azala, lehenbiziko orrialdea.

Irratia ala telebista?

Irratia. Telebista oso gutxi ikusten dut.

Liburu bat/Film bat/Musika talde bat?

Idazleak esango dizkizut: Amin Maalouf, Gioconda Belli, García Marquez.../Casablanca/Eskorbuto.

Non bukatuko du Athleticcek aurten?

Dabilen moduan, lehen mailan jarraitzearekin konformatzen naiz.

Eta Realari zer opa diozu?

Guk ezin dugunez, liga irabaz dezala Realak.

Loterian milioi bat euro irabaztekotan?

Bidaia bat egingo nuke ospatzeko eta gero, gerokoak. Marokora edo Venezuelara bueltatuko nintzateke gustura.

EDU MENDIBIL

BERGARARRAK MUNDUAN

ALEX UGALDE

28 URTE / IRUDI TEKNIKARIA / MADRILEN BIZI DA

“Gustura dihardut Madrilen lanean, eta ondo egokitu naiz hemengo bizimodura”

EDU MENDIBIL

O rain dela bi urte pasatxotik Madrilen bizi da. Andoainen Irudi ikasketak egin zituen, eta, Euskal Herrian lana topatzeko zailtasunak zirela-eta, Madrilerako joatea erabaki zuen: “Euskal Herrian ekoizpen etxe gutxi dago eta EITBn edo tokian tokiko telebistetan lana lortzea oso zaila da. Gainera, leku askotan ordu pilo bat lan egin eta gutxi irabazten da. Madrilen aukera handiagoak izango nituela pentsatu nuen, eta nirekin ikasitako Durangoko lagun batek animatuta etorri nintzen”. Oraingoz gustura dago, eta lanik ez zaio falta. Video Report eta Sono ekoizpen etxetarako egiten du lan, nagusiki, eta zera esaten du: “Lana boladaka izaten dut. Badira hilabete batzuk lan eta lan ibiltzen naizela; beste batzuetan, aldiz, deitzeko zain egoten naiz. Aldi baterako lan enpresa batekin nabil, eta haien mende egoten naiz beti. Aste barruan egiten dut lan, nagusiki, baina aste bukaera askotan ere tokatzen zait lan egitea. Hola ibilita, ezin zaio lan eskaintza bati ezetz esan”.

Besteak beste, telebista saioetarako, kontzertuetan edo hitzaldi-tan lan egiten du. Zera esan digu Alexek: “Ikus-entzunezkoen alorrean mailarik baxuenean nago, eta materiala eramatea, kableak jartzea eta horrelako lanak egiten ditut. Egia esateko, ez dute askorik ordaintzen, baina gutxienez egingadako lanordu guztiak pagatzen

“Aldi baterako lan enpresa batekin nabil, eta haien mende egoten naiz lana topatzeko”

dituzte. Alde horretatik, behintzat, ezin naiz kexatu”. Zineman lan egiteko aukerarik ez du izan orain arte: “Horretarako entxufe behar da, oso zaila da esparru horretan sartzea”.

Beste bi lagunekin batera Carabanchel auzoko etxe baten bizi da: “Langileen auzo bat da eta oso ondo dago. Etorri aurretik Carabanchel kartzelarekin lotzen nuen eta ezusteko atsegina hartu nuen hona bizi izatera etorri nintzenean. Auzo lasaia da eta trankil asko nor bere kasa ibil daiteke. Etxebizitza ondo dago eta prezio onean lortu genuen”.



Madril eta horrelako hiri handiek aisialdirako eskaintza benetan erakargarria dutela diosku Alexek: “Hemen denetik dago: zinema, antzerkia, musika kontzertuak, komiki dendak... Eta gaueko giroa ere oso ondo dago. Gauez irteten banaiz, hiri erdialdean, Malasaña edo Lavapies inguruan ibiltzea gustatzen zait. Taberna aproposak daude eta gaueko giroa oso majoa da. Orokorrean jendea oso irekia da Madrilen, leku askotako jendea dago hemen. Eta Madrilen ez da jendeak uste bezain garestia. Hori bai, jakin egin behar da non erosi eta non ibili”.

Oraingoz ez daki noiz arte geratuko den Madrilen. Lana duen bitartean han jarraitzeko asmoa dauka: “Dirua eta lana dauzkadan bitartean... Gustura nago, eta ondo egokitu naiz hemengo bizimodura. Madrilen estresagarria dela esaten dute, baina Bergaran gehiago estresatzen naiz. Hemen inork ez zaitu ezagutzen, eta anonimotasun hori ondo dago”.

Batez ere lagunak sumatzen ditu faltan, baina orain dela bi aste han elkartu ziren koadrilakoak, lagun baten ezkontza-agurra egiteko. Bergaran Gabonetan egon zen azken aldiz. Herrimina asetzeko-edo Madrilen Euskal Etxean egon da behin baino gehiagotan, lagunartean Reala-ren partidua ikusten: “Azkenaldian ez naiz egon, baina giro polita egoten zen. Euskaldun asko bizi da Madrilen. Realekoa naiz, eta aurten oraindik gehiago. Ondo egongo litzateke Realak liga irabaztea...”.

Astelehenean, apirilak 31,  
**BATZOKIKO TABERNA**  
**BERRIZ ZABALIK**

Gosariak • Menua • Afariak

San Pedro 4 • 943 76 49 33



TXIRRINDULARITZA

# Amateur mailako txirrindulari onenek hartuko dute parte Gorlako Igoeran

Bigarren aldiz ibilbide berriarekin jokatu da proba domekan, elite eta 23 urtetik azpiko txirrindularien parte-hartzearekin

EDU MENDIBIL

Gorlako txirrindulari igoeraren 29. ekitaldia jokatu da domekan, 10:00etan hasita. Eliteko eta 23 urtetik azpiko 160 bat txirrindularik hartuko dute parte lasterketan, eta amaiera 12:30ak aldera izango da, Gorlako gainera bigarren aldiz igo eta gero.

Joan den urtean moduan, txirrindulariek 90 kilometroko ibilbidea izango dute domekan. Lasterketa 10:00etan hasiko da San Martin plazan eta ondoko ibilbidea izango dute: Arrasate, Eskoriatza, Bergara, Gorla (43. Km), Urretxu, Deskarga (72. Km), Bergara eta Gorla. Antolatzaileek ibilbidea aldatu zuten iaz, eta oso gustura dira txirrindularien eta zaleen aldetik probak izandako erantzunarekin. Aurten ere partaidetza handia lortu dute: eliteko eta 23 urtetik azpiko 160 bat txirrindulari izango dira domekako irteeran. Bestalde, eguraldia lagun, Gorlan zale asko batzea espero dute Lokatzakoek.

Betiko moduan, zaila da domekarako faboritoak zeintzuk diren aurreratzea. Txirrindulariak denboraldiaren hasieran daude eta batzuk ez dute euren sasoi punturik onena lortu oraindik. Hala ere, Mikel Elgezabal (Alfuste), Jokin Ormatxea (Telcom)



ANGEL RUIZ DE AZUA

Joan den urtean probak ibilbide berria estreinatu zuen eta Iñigo Urretxua izan zen irabazlea.

eta Mario De Sarraga (Baque) aurreneko tokietan izan daitezke. Lokatzako harrobitik irteerako lau lagun izango dira irteeran: Debabarrena taldeko Iñigo Larrañaga, Iñaki De Benito eta Xabier Aranguren eta Ulma-Cega-

san dabilen Ander Agirre. Lasterketa Euskaldun Txapelketarako puntuagarria izango da.

## ERREPIDEA, ITXITA

Antolatzaileek aditzera eman dutenez, txirrindulariak Gorlatik

pasatzen diren bakoitzean bakoitzetik itxiko da errepidea ibilgailuendako. Lokatzak herriko eta ibarreko ziklistazaleei domekan Gorlara joateko gonbidapena egin nahi die. Bestalde, urdaiazpiko bat eta ardo kaxa bat zozketatu-

ko ditu Lokatzak. Zozketan parte hartzeko txartelak tabernetan eskura daitezke dagoeneko, eta domekan ere egongo dira salgai. Zozketa domeka eguerdian egingo dute eta irabazleak hilabetez izango du saria jasotzeko.

## Azken irabazleak

Urtea	Txirrindularia	Denbora
1988	Luis Urizar	22'43"
1989	Julian Barcina	21'38"
1990	Xabier Lazpiur	21'20"
1991	Alfredo Irusta	21'09"
1992	Iñigo Cuesta	21'20"
1993	Julian Barcina	20'36"
1994	Santi Blanco	20'33"
1995	Klaus Möller	20'21"
1996	Joseba Arregi	21'21"
1997	Carlos Sastre	20'59"
1998	Juan Manuel Garate	20'33"
1999	Juan Manuel Garate	21'11"
2000	Joaquin Rodriguez	20'46"
2001	Alberto Contador	20'30"
2002	Iñigo Urretxua	—

## Bergara-Aretxabaleta, martitzenean, Debarroko Pilota Txapelketan

E.M.

Debarroko Pilota Txapelketaren barruan, Bergarako eta Aretxabaletako taldeen arteko bi partidu jokatu dira datorren martitzenean, apirilaren 1ean, Udal Pilotalekuan, 19:30ean hasita.

Gaspe eta senior mailako partiduak jokatu dira martitzenean Udal Pilotalekuan. Asier Larrañagak eta Ibai Altunak osatutako gazte mailako bikoteak Aretxabaletako ordezkarien aurka jokatu du eta jarraian, senior mailan, Edu Samaniegok eta Igor Gutiérrezrek aretxabaletarrei aurre egingo diote.

Aretxabaletako taldeak kade-te mailako bikoterik ez duenez, bergararrek atsedean izango dute martitzenean. Xabier Azurmen-di eta Jon Larrañaga ditugu herriko ordezkariak maila horretan. Antzuola, Oñati eta Berga-



ARTXIBOA

Iazko Debarroko Txapelketan parte hartu zuen Bergarako taldea.

ra dira kadete mailako bikoteak dituzten Debagoieneko talde bakarrak, eta, gauzak horrela, bergararrek aukera handiak dituzte finalerdietarako sailkatzeko. Aurtengo finalak Elgoibarraren jokatu dira.

## BERGARA HIRIA

Bestalde, apiril erdialdean Bergara Hiria Txapelketa hasiko da. Igor Gutiérrezrek eta Ander Mugaruzak hartuko dute parte, eta laster jakingo dugu euren bikoteki-deak zeintzuk izango diren.

## Txakur leren lasterketaren X. aldia apirilaren 13an

E.M.

Bergara Mushing taldeak antolatuta, Gorlako txakur leren lasterketa jokatu da apirilaren 13an, 11:00etan. Probaren X. aldia 50 bat partaide batzea espero dute antolatzaileek.

Esan dugun moduan, lasterketak X. ekitaldia beteko du aurten. Nobedade gisa, antolatzaileek euskal musher onena sarituko dute apirilaren 13ko probaren ostean. Alpen Trail proba ospetsuan laugarren geratu zen Iban Uriondo arabarraren eta Pirenan hirugarren izan zen Iker Ozkoidiren artean erabakiko da saria, ziurrenik. Bestalde, probaren bezperan, Erramu-zapatuan, txakurrak ikusgai egongo dira Seminarioan, eta iglu forma duen globo aerostatiko handi bat jarriko dute bertan.

Apirilaren 13ko probari dago-kionez, aurreko urteotako ibil-

bide bera izango du. Partaideek Gorlako kantinatik Trekutzera bitarteko joan-etorria egin behar duko dute; 9,5 kilometro guztira.

## PARTAIETZA BIKAINA

Antolatzaileek oraindik ez dute konfirmatu partaideak zeintzuk izango diren, baina Euskal Herriko eta Estatuko musher onenak parte-hartzea lortzen ahaleginduko direla aurreratu dituzte. Axen Garitano bergararrek ere du azken urteotan Gorlako lasterketan parterik hartu, baina baliteke aurten irteeran egotea. Denboraldiko azken probetako bat denez, partaidetza bikaina lortu izan dute antolatzaileek azkeneko urteotan. Betiko moduan, txakur kopuruaren araberainbat maila bereizitako dituzte apirilaren 13ko lasterketan. Txakur nordikoak nagusi izango dira partaideen artean. Hortaz, txakur leren zaleek ezinbesteko hitzordua dute Gorlan apirilako bigarren domekan.





INARRA

Shotokan taldekoek emaitza bikainak lortu zituzten domekan Oñatin jokatuako Herri Arteko Txapelketan.

## Euskadiko Karate Txapelketa, zapatu arratsaldean, Labegaraietan

Kepa Odriozola eta Markel Larrañaga bergararrek hartuko dute parte

E.M.

Euskadiko Karate Txapelketa jokatu da bihar, zapatua, Labegaraietako kiroldegian, 16:30ean. Infantil eta gazte mailetako karateka onenak batuko dira Labegaraietako kiroldegian, Kepa Odriozola eta Markel Larrañaga bergararrek tartean. Guztira 200 bat lagunek hartuko dute parte biharko saioan.

Kepa Odriozola infantil mailan lehiatuko da. 12 urte ditu eta gerriko urdina dauka. Lehen aldia da Euskadiko Txapelketarako sailkatzen dena. *Kate* eta *kumite* (45 kilotik beherakoak) modalitateetan jardungo du bihar, eta badirudi *kate* modalitatean emaitza hobea lortzeko aukera duela.

Markel Larrañagak Euskadiko gazte mailako selekzioan dabil eta aurten Gipuzkoako txapel-

duna izan da *kumite* modalitatean, 70 kilotik beherakoetan mailan. Bihar emaitza ona lortuz gero, apirilaren bukaeran Eivissan jokatu den Espainiako Txapelketara joateko aukera izango du.

### SHOTOKAN TALDEA OÑATIN

Bestalde, Shotokan karate taldea lehena izan zen taldekako sailkapenean domekan Oñatin, Herri Arteko Txapelketan.

### FUTBOLA

#### Bergarak Hernaniren bisita izango du zapatu arratsaldean Agorrosinen, 16:30ean

Lau futbol partidu izango dira asteburuan: zapatuan, Bergara-Aitzgorri (lehen mailako kadeteak, 11:30); Bergara-Hernani (preferentea, 16:30); eta Bergara-Martutene (bigarren erregionala, 18:30). Domekan, Bergara-Arenas, Agorrosinen (Gazteen Euskal Liga, 16:30).

### ESKUBALOIA

#### Senior mailako nesken taldeak ligako azken partidua jokatu du domeka eguerdian

Bergara KEko senior mailako nesken eskubaloi taldeak ligako azken partidua jokatu du domekan. Bergararrek Muskiz taldea hartuko dute Labegaraietako kiroldegian, 12:15ean.

### TENISA

#### Tenis Txapelketako finalerdiak jokatu dira zapatu goizean Labegaraietako pistan

Bihar, Tenis Txapelketako finalerdiak izango dira. Jose Caballero eta Roberto Irizarrek 10:00etan jokatu dute, eta ondoren Juan Luis Etxaniz eta Ander Oñaederra izango dira aurrez aurre.

### LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

#### ZAPATUAN, KANPOAN

16:00: Bedarreta-A Ze Flaxa. Belengua  
17:00: Las putas de Sat.-Belengua. Bedarre.  
18:00: Dedo Pafarru-La Quinta. Las putas

#### DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Pagomendi-Txipiron. Etengabe  
10:30: Fac-Etengabe. Pagomendi

16:00: Argandolas-TNT. Pirulotarrak

17:00: Errotagain-Pirulotarrak. Argandolas  
18:00: Dedo Pafarru-Irribide. Cipote  
19:00: Bayer-Mongatxurak. Agirrebeña  
20:00: Agirrebeña-Aterpe. Antolaketa

#### ZAPATUAN, KANPOAN

17:00: Argandolas-Cipote. TNT



# Mirari

JANTZIDENDA

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

UDABERRIA-UDA





Esteban, Iñigo, Torretxo eta Mutxik osatzen zuten Angiolillo taldea.

Datorren egubakoitzean egingo du emanaldia, 22:30ean, Pol-Pol tabernan

## Angiolillo taldea kontzertu bat emateko batu da

MONIKA BELASTEGI

„...ta segi aurrera plataformak batu ditu Angiolillo taldeko lau kideak kontzertu hori emateko. Horrekin batera, beste bi ekitaldi antolatu ditu plataformak: gaur, egubakoitza, antzerki emanaldia egongo da eta eguenean, Angiolillo anarkista zenaren gaineko hitzaldia.

Aspaldiko taldea berriz ikusi eta entzuteko aukera izango dugu datorren egubakoitzean Pol-Pol tabernan. Iñigo, Esteban, Torretxo eta Mutxi berriz batuko dira eta Angiolillo taldearen zuzeneko musika eskainiko dute. Emanaldi berean Goiko Rock herriko taldeak ere jardungo du.

### ANGIOLILLO, IZENA ETA IZANA

1987an sortu zen Angiolillo taldea, eta euren sorterrian emandako kontzertuez gainera, inguruko herri askotan egin zituzten emanaldiak, Arrasaten, Sorraluzen, Ondarroan, Lekeitio eta Bilbon, besteak beste. Horrez gainera, bi maketa grabatu zituzten Gasteizen, baita bideoklip bat ere, *Gaueko* izenekoa. Amaia Labaien eta Elsa Mansoren laguntzarekin. Urteek aurrera egin, eta 1993an eman zuten azkeneko kontzertua, Mendekoste jaietan.

Izenari dagokionez, taldeak Michele Angiolillo anarkista italiarrarengandik hartu zuen. Izan ere, Bergaran epaitu eta hil zuten, Antonio Cánovas del Castillo presidentea hil zuelako.

Angiolillo eta Cánovas del Castillo dira, hain justu ere, ...ta segi aurrera plataformak antolatu duen hitzaldiaren oinarri.

Apirilaren 3an, eguenean, izango da, 19:00etan, kultura etxean, eta honako izenburua du: *Angiolillo Vs Cánovas. Revolución frente a Restauración*.

**Bergarako Angiolillo taldeak 1993ko Mendekoste jaietan eman zuten azkeneko kontzertua**

**Angiolilloren eta Cánovasen gaineko hitzaldia egongo da eguenean, 19:00etan, kultura etxean**

Juanto Madariagak -UNEDeko zuzendari ohiak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak- egingo du hitzaldi hori.

### GAUR, EGUBAKOITZA, ANTZERKIA

Gaur, egubakoitza, Goaz antzerki taldearen emanaldia egongo da plataforma beraren eskutik. 22:30ean izango da, Pol-Pol tabernan, eta ikuskizunak *Trabena-Txoua* du izena.

Hiru antzerki laburrez osatutako ikuskizun arina da; hiru istorio dira, baina kokapen bera dute: geltoki bateko kantina baten gertatzen dira hirurak.

Lehenengoak *Aberi bat, aberi bi, hiru aberi* du izena, eta egilea Luis Mari Agirrezabala da. Autoak huts egin eta kantinara sartzen den gidariak mekaniko bat egingo du han lagun. Bigarren istorioa egile berarena da eta *Teleikuskopia* du izena. Futbol partidua ikustera kantinara joan behar izan duen gizona da protagonista, eta gainerako bezere bere bizitza kontatuko die.

Hirugarren eta azken istorioak *Geltokian...* du izena; Goizane Aizpurua da istorio horren egilea eta goiz hotzetan kantinan gertatu izan diren pasadizoak irudikatzen ditu.

## 'Urak dakarrena, glu-glu...', hilaren 4an, Zabalotegin

MONIKA BELASTEGI

Glu Glu Produksioak konpainiak *Urak dakarrena, glu-glu...* izeneko antzezlan egingo du datorren egubakoitzean, apirilaren 4an, 22:30ean, Zabalotegi aretoan. Bakarrizketa da eta aktorea Esther Uria da.


Glu Glu Produksioak konpainiak sortutako bakarrizketa da *Urak dakarrena, glu-glu...* Esther Uria da aktorea antzezlan horretan, eta Txinako pitxer baten aurkitutako akats txiki batek pitxerraren edertasuna nabarmentzen duen moduan, eguneroko arazo txikiak bizitzak dituen gauza zoragarriak erakusten dutela da *stand up comedy* erako antzezlan horren oinarria. Izan ere, Esther Uria aktore gazteari norbaitek esana zion bizitza kafe on bat bezalakoa dela: hau da, zenbat eta beltzagoa, orduan eta sakonagoa, zenbat eta garratzagoa, orduan eta gustagarriagoa, eta, era berean, zenbat eta buelta gehiago eman, orduan eta hotzagoa.

### ESTHER URIA AKTORE EZAGUNA PROTAGONISTA

Esther Uria aktore ezaguna dugu. ETBko telesail arrakastatsuenetan hainbat pertsonaia antzezten ditu, besteak beste, *Bi eta Bai*, *Goenkale*, *Gure familia* eta *Jaun eta Jabe* telesailen. Bestalde, beste hainbatean protagonista papera ere egin izan du, *Ander eta konpainian* eta *Metropolin*, esate baterako.



Esther Uria



### Debagoieneko bandokideak aztergai

Martitzenenean, apirilaren 1ean, Euskal Herriko historiaren gaineko zortzigarren hitzaldia izango da, 19:30ean, Miguel Altuna Institutuko aretoan. Jose Angel Achón Historian doktoreak egingo du hitzaldia eta honako gaia jorratuko du: *Bandokideen arteko guduak Debagoienean. Arazo sozialak eta lurralde historikoen osatzea*. (M.B.)

### KULTURAPILULAK

#### Apirilaren 4an amaituko da Erramu-zapatuko Txorimalo Lehiaketan izena emateko epea

Datorren egubakoitzean, apirilaren 4an, bukatuko da Jardun elkarteak apirilaren 12ko Erramu-zapatuko feriarako antolatu duen Txorimalo Lehiaketan izena emateko epea.

Izena Jardun elkartearen eman beharko da (Errotalde jauregia) edo honako telefono zenbakietako batera dei daiteke: 943 76 08 11 edo 943 76 36 61.



E, TXO!

**ANTZERKI EMANALDIA  
GAZTETXEAN**

Gaur, egubakoitza, antzerki emanaldia izango dugu Bergarako gaztetzean. La Tirili antzerki taldeak *Stop al pánico* antzezlanaren taularatuko du, 22:30ean.

**AUZOLANDEGIETARAKO  
IZENA EMATEKO AUKERA**

Hilaren 26an zabaldu zuten auzolandegetarako izena emateko epea eta apirilaren 6ra arte egongo da zabalik. Astelehenetik egubakoitzera, 08:00etatik 20:00etara egongo da izena emateko aukera, honako telefono zenbaki honetara deituta: 900 100 588.

Informazio zabalagoa nahi izanez gero, [www.gazteaukera.net](http://www.gazteaukera.net) webgunera jo dezakezue.

**UME ETA GAZTETXOENDAKO  
UDALEKUAK**

7 eta 13 urte bitarteko neska-mutikoek udalekuek joateko aukera dute udan. Horretarako izena eman eta zozketa baten parte hartu behar du. Apirilaren 1era arte dute izena emateko aukera, [www.gipuzkoa.net/oporrraldia](http://www.gipuzkoa.net/oporrraldia) webgunean edo Bergarako Gazte Informazio Gunean. Apirilaren 10ean egingo dute zozketa. KZGunean lor ditzakezue eskaera orriak.

**GAZTE INFORMAZIO GUNEAN  
HAINBAT TXARTEL**

Gogora ezazue Gazte Informazio Gunera jo dezakezuela Ikasle Txartela, Gazte Txartela edo Aterpekide Agiria eskuratu nahi baduzu. Errotalde jauregian dago bulego hori; egunetan eta egubakoitzetan, 16:00etatik 20:00etara eta zapatuetan 09:30etik 13:30era egoten da zabalik.

**GUREGAIK/ IKAS-BIDAIK**

**Aranzadikoak Jakara eta Saloura doaz**

AINZANE IRIZAR

Antolatuta dituzte dagoeneko ikas-bidaiak herriko ikastetxetako ikasleek ze bidaia egingo duten ikusiko dugu datozen asteotan. Aranzadikoak Jaka eta Saloura joango dira.

Udaberriarekin ikas-bidaien garaia iristen zaigu urtero. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren ikasturteko ikasleek bidaia egiteko ohitura dute urteko sasoi honetan.

Aranzadi Ikastolako neska-mutilek maiatzaren 5etik 9ra egingo dute bidaia hori. DBHko laugarren mailako ikasleak dira, 15 eta 16 urtekoak.

Guztira berrogei bat ikasle joango dira bidaiara, baita hiru irakasle ere.

Lehenengo Huesca aldera joango dira, Jacara, hain zuzen ere. Bi egun egingo dituzte hantxe, hainbat kirol praktikatzen: *paintball*-a, *rafting*-a, arroilen jai-tsiera... Abenturaz betetako kirolak egiteko aukera izango dute gaztetxo horiek Huesca aldean.

Handik Salou aldera abiatuko dira, eta bidean Bartzelonan geldialditxoak egingo dute. Egun bat pasatuko dute hantxe, eta ibilaldi turistikoak egingo dute, Bartzelona ezagutzeko.

Esan bezala, Bartzelonatik Saloura joango dira, eta bi egun egingo dituzte han Aranzadiko ikasleek.



Gabonetan kantu-kantari ibili ziren ikas-bidaiarako dirua lortzeko.

ARTXIBOA

**LOTSABARIK/ Ariane Alberdi**

**“Koadrilarekin edonora joango nintzateke”**

AINZANE IRIZAR

Lagunak eta laguntasuna asko estimatzen ditu Ariane, eta lagun onak ditu, gainera; pentsa ezazue, karpetan euren argazkiak ditu eta eurekin edonora joango litzatekeela esan digu!

• Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?

Gazteondako gauza gehiago jarriko nituzke herrian: gazteok egoteko toki gehiago, ekintza gehiago antolatuko nituzke...

• Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?

Lagunen argazkiak dauzkat; horietako asko, gainera, BERRI-

GARAtik moztutakoak, baita jaietan hartutako pegatinak ere.

• Telebistako saiorik gorrotagarriena? Eta gustukoena?

Pedro Ruizek aurkezten duen *La noche abierta*; *Sorginen Laratza*, berriz, oso gustuko dut

• Pertsonaia higuinagarriena? Eta gustukoena?

*Hotel Glamour*-eko Potxolo; gustukoena, berriz, Mikel Aranburu, Realeko jokalaria.

• Zerk amorratzen zaitu?

Gezurrek.

• Zer estimatzen duzu besteengan?

Adiskidetasuna, laguntzeko gertu dagoen jendea.

• Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?

Zoriontsu izateari.

• Zure bertute bat? Eta akats bat?

Oso alaia naiz, baina baita lotsatia ere.

• Zelan ligatzen duzue gazteok?

Ez dut askorik ligatzen; dena dela, batez ere jaietan ligatzen da.

• Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?

Alaia, beti egia esaten duena eta nitaz arduratzen dena. Fisikoari dagokionez, beltzarana eta irribarre polita duena.

• Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?


Koadrilako lagunekin, edonora, *rafting* egitera, esaterako.

• Etorkizunerako amets bat? Denok zoriontsu izatea.



ADINA: 16 urte • IKASKETAK: Batxilergoko lehenengo ikasturtea • ZALETASUNAK: Lagunekin irtetea  
LIBURU BAT: 'Flores en el ático', V.C. Andrews • FILM BAT: 'La bella y la bestia' • MUSIKA TALDEA: Berri Txarrak • KIROL TALDEA: Reala

**TIRABIRAKA/ Joseba Lasa**





## ZAHARRENETXETIK

# Sorbaldak zaintzen jakiteko ikastaro praktikoa eskainiko dute San Joxepe elkartearen datorren astelehenetik aurrera

EDU MENDIBIL

**D**atorren astelehenetik aurrera sorbaldak zaintzen jakiteko ikastaroa eskainiko du ICTE San Joxepe. Erabilizten dugun hainbat jarrera oker ahal den neurrian zuzentzea da ikastaroaren helburua.

ICTEko Amagoia Murua-mendiaraz mediku gerontologoa eta Laura Da Quinta klinika laguntzaileak emango dute ikastaroa. Martxoaren 31tik maiatzaren 26ra bitarteko astelehenetan izango dira eskolak, San Joxepe, 16:00etatik 17:30era. Izen emateak 16 euro balio du.

Esan bezala, guztiok erabilizten ditugu okerrak diren jarrerak eguneroko ekintzetan. Ikastaroak jarrera horiek zelanbait zuzentzeko helburua dauka. ICTEko ordezkariak zera uste

dute: "Badira gaixotasunen erruz sortzen diren sorbaldako arazoak eta jarrera okerrak erabiltzearen ondorio direnak. Modu zuzenean mugitzen ikasteak berebiziko garrantzia dauka gure osasunean. Gai horrekin sentibilizatuta dagoen jende asko dago, eta, hala, jarrera okerrak alde batera uzteko aukerak aztertuko ditugu ikastaroan".

Astelehen bakoitzean gai bat aztertuko dute: lumbalgia eta sorbaldako mina, lepaornoen sindromea, luzatze-eraketak, kirolaren garrantzia eta ergonomia, besteak beste.

### HITZALDIA EGUAZTENEAN

Antsietatearen eta estresaren gaineko hitzaldi sortarekin amaitzeko, Amagoia Muruamendiarek estresari aurre egiteko teknikak azalduko ditu eguaztenean, apirilaren 2an, San Joxepeko hitzaldi aretoan, 17:30ean.




Okerrak diren jarrerak zuzentzea da ikastaroaren helburuetako bat.

## Maiatzean La Perlara joateko irteerak antolatu ditu San Joxepe

E.M.

San Joxepe elkartearen eskutik, maiatzean Donostiako La Perlara joateko aukera izango dute erretiratuek. Hantxe hidroterapia tratamendua hartu ahal izango dute. Irteerak hamar egunean izango dira: maiatzaren 5ean, 7an, 9an, 12an, 14an, 16an, 19an, 21ean, 23an eta 26an. Irteera guztiak arratsaldean egingo dituzte: Bergaratik 15:00etan irtengo dira, autobusez, eta bueltan 19:00etan irtengo dira Donostiatik. Parte hartzen duten lagunen arabera 10 bainutarako bonoak 81 euro eta 97 euro bitarteko prezioa izango du. Interesatuak 943 76 30 09 telefono zenbakira dei dezakete edozein argibidetarako.




La Perlan hidroterapia tratamendua jasotzeko aukera izango dute erretiratuek.

**DONOSTIARA IRTEERA MARTITZENEAN** Bestalde, erretiratuek martitzenean, apirilaren 1ean, Donostira irteera antolatu dute. Donos-

tiako Aquariuma bisitatuko dute, eta gero sagardotegi baten bazkalduko dute. 09:00etan irtengo dira, Beheko Estaziotik. Hala,

izenematea, lehenbailehen, San Joxepe elkartearen harrera gelan edo 943 76 30 09 telefono zenbakian egin beharko da.



### Mendi irteera Urkulura eta Bedoñara

Mendi irteeren programazioarekin jarraituz, San Joxepeko lagunek irteera egingo dute eguaztenean, apirilaren 2an. Beheko Estaziotik irtengo dira, 09:30ean. Aretxabaletara eta Urkuluko urtegira joan ondoren, bazkaria Arrasateko Bedoñara auzoan egingo dute. Bazkalostean Arrasatera jaitsiko dira bueltako autobusa hartzeko. Bestalde, hilero ibilaldiak egingo dituzte Bergara inguruan. Apirilaren 9an San Blas eta Mekolalde aldera joango dira, 16:00etan, San Joxepetik irtenda.



**Matxiategi  
Elektragintza  
S.L.**

ELEKTRIZITATE MATERIALEN  
SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behe. BERGARA. 943 76 19 94.

GARRAIOAK  
**ANDUZU**  
TRANSPORTES

BERGARA  
607 349 043



**Grua zerbitzua**

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak



**Silvestre Muñoz, s.l.**  
pinturak

610 25 99 82  
610 25 40 37  
943 76 24 11  
Amillaga 1, 10 pabilioia.  
20570 BERGARA

Pintura-lanak  
orokorrean  
•  
Pintura industrialia  
•  
Zoru arinak:  
sintasolak, moketak...



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Santu izatera heldu zen eta lehenengo meza ermita horretan eman zuen, 1551n. Nor zen hura eta zein da ermitaren izena?

PINTOREBERGARARRAKGAUR


Jose Mari Ugalde

EDU MENDIBIL

Simon Arrietaren eskolan hasi zen margolaritzan Jose Mari Ugalde (Bergara, 1946) eta gero, besteak beste, Parisen (bost urtez bizi izan zen han) eta Madrilan sakondu zituen pintura ikasketak. 1985ean estudioa jarri zuen Bartzelonan, eta 15 urte eman zituen Katalunian. Gaur egun Errioxan bizi da eta San Millan de la Cogolla ibarrean dauka lan egiteko lantegia. Ezkarain lanak erakutsi eta saltzeko denda irekiko du laster, Aste Santurako. *Land art* edo natura artean kokatzen diren lanak egiten ditu: "Eraikin metafisikoak, ukitu eta ikusi ezin diren muntaiak egiten ditut espazio naturalan. Pintura beste erreminta bat bezala erabiltzen dut eta emaitza baino gehiago, sortze prozesua interesatzen zait. Memoriaren garrantzia aldarrikatu nahi dut zelanbait".

Sortze prozesuan hiru gauza azpimarratzen ditu: "Askatasuna, funtsezkoa; isiltasuna, zaratarekin edo zurrumurruarekin ezin da sortu-eta; eta, azkenik, norbera non dagoen jakiteko eta ingurukoa ikusteko talaia moduko bat".

*"Sortze prozesuan askatasuna, isiltasuna eta ingurukoa ikusteko talaia funtsezkoak dira"*



ARTXIBOA

GALDEDEBALDE

1.

Apirilaren 6an, zein ordutan helduko da Korrika 13 San Martin plazara?

- A/ 09:30ak aldera.
- B/ 14:10ak aldera.
- C/ 16:27ak aldera.

2.


Nor da *Urak dakarrena, glu glu...* antzezlaneko aktore protagonista?

- A/ Esther Uribe.
- B/ Elena Irureta.
- C/ Mireia Gabilondo.

3.

Zein izan zen Gorlako txirrindulari igoerako irabazlea 2002an?

- A/ Joaquin Rodriguez.
- B/ Alberto Contador.
- C/ Iñigo Urretxua.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

PATXI UGALDErendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Patxi!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Beti-Alai** / Galde debalde: **1-B, 2-B, 3-C.**



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Don Simon ardoa

Litroko brika.

**0,93 €**

155 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



**ZABALA**  
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14  
BERGARA.  
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

**REMENTERIA**  
Altzariak

Egongelak  
Logelak  
Aukera guztiak  
Enkarguan

Artekalea, 6  
BERGARA  
943 76 13 29

**Kabutzia**

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tf. 943 76 56 62


**SANTOS**



Etxetresna elektrikoak  
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA  
Tf. 943 76 26 10





# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.

Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.  
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren.  
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



BERGARA  
**Elisabeth Gallardo**  
Martxoaren 27an, 18 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



ANTZUOLA  
**Jon Fernández**  
Martxoaren 27an, 2 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



ANTZUOLA  
**Ander López de Heredia**  
Martxoaren 30ean, 3 urte.  
Urte askotarako! Etxekoak.




BERGARA  
**Martin Larrañaga**  
Martxoaren 25ean, 4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



ELGETA  
**Iruñe Errasti**  
Martxoaren 25ean, 4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Maialen Goirizelaia**  
Apirilaren 3an, 7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Iker Poza**  
Martxoaren 30ean, 3 urte.  
Urte askotarako!  
Aita eta ama.



BERGARA  
**Uxue Goñi**  
Martxoaren 23an, 12 urte.  
Urte askotarako!  
Koadrilako neskak.



BERGARA  
**Julen Irizar**  
Martxoaren 26an, 8 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Idoia Imaz**  
Martxoaren 29an, 7 urte.  
Urte askotarako! Ane, Jon,  
Maddi, Xabi eta etxekoak.



BERGARA  
**Amaia San Torcuato**  
Martxoaren 28an, 10 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta lagunak.

## Adi!

Argazkiak emateko lekuak:  
**Bergara:** Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33  
**Antzuola:** Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara  
**Elgeta:** Erosle-Baltxongua

## JOXAN ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29

## Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotilea  
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a,  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 /  
666 517 295

## IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,  
haziak eta bestelako  
nekazal produktuak



San Pedro 3. BERGARA.  
Tf. 943 76 23 79



# Beste inon baino horma-armairu eta ate gehiago



Lanlekurako



Gazteen gelarako



Egongelarako



Logelarako

# GELAN

Kruz Gallastegi 9 BERGARA 943 76 38 10



# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko martxoaren 28a / 152. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## KZGunea datorren astean zabalduko dute, eguenean

AINTZANE IRIZAR

Datorren asteko eguenean, apirilak 3, zabalduko dute KZGunea Olanen etxean. Urtarrilean zabaltzekoak ziren, baina hainbat arazo izan dituztenez, atzeratu egin behar izan dute. Behin taldeak osatzen dituztenean ikastaroak hasiko dituzte KZGunean.


Bi zerbitzu eskainiko dituzte KZGunean: batetik, Internet erabiltzen ikasteko hainbat ikastaro emango dituzte; bestetik, nahi duten herritarrek Interneten ibiltzeko aukera izango dute. Olanen etxeko lehendabiziko solairuan dago KZGunea, eta bederatzi ordenagailu jarri dituzte hantxe.

### IKASTAROK, PARE BAT ASTE BARRU

Urtarrilean zabaldu zuten ikastaroetarako izena emateko epea; izan ere, KZGunea urtarril bukaeran zabaltzeko asmoa zuten. Baina telefonia konpainiekin hainbat arazo izan zirela-eta, atzeratu egin behar izan zuten zabaltzeko eguna.

Orduan izena eman zuten herritarrek laster izango dute Interneten gaineko ikastaroetan hasteko aukera. Oraindik ere badago izena emateko aukera, udaletxean edo KZGuneako telefono honetan: 943 78 70 86.

Libe Txintxurreta bergarraizango da KZGuneako arduraduna. Ikastaroetarako taldeak osatzen eta egutegiak eta ordu-tegiak zehazten hasiko dira eguenean bertan. Behin lan hori egin-



Bederatzi ordenagailu jarri dituzte Olanen etxeko lehenengo solairuan.

da, ikasleei deitzen hasiko dira. Gutxi gorabehera pare bat aste barru ikastaro horiekin hasteko moduan egongo direla espero dute arduradunek.

### INTERNETEN IBILTZEKO ZERBITZUA

Asteleheneetik egubakoitzera egongo da zabalik KZGunea, 16:00etatik 20:00etara. Ordu-tegi

horretan, eta ikastarorik ez dagoen orduetan, edozein herritarrek erabili ahal izango ditu ordenagailuak eta Internet. Nork bere datuekin txartel bat betetzea nahikoa izango da Internet erabili ahal izateko eta norberari posta elektronikoa emateko. Gehienez ordubetez ibili ahal izango da Interneten.

## HAUTESKUNDEAK

### Plataforma maiatzeko hauteskundeetan

AINTZANE IRIZAR

Otsailaren 22an aurkeztu zuten hainbat herritarrek osatutako Gertu gae plataforma. Ezker abertzalearen ideiak defendatzeko sortu zutela adierazi zuten orduan; orain, berriz, maiatzeko hauteskundeetara aurkeztuko direla jakinarazi berri dute.

Oraingo astean jakinarazi dute Gertu gae plataformako arduradunek maiatzeko hauteskundeetara aurkeztuko direla. Edozelan ere, oraindik ez dituzte zerrendak osatu, eta alkategaia zein izango den ere ez digute jakinarazi.

Aurkezpen ekitaldian azaldu zuten moduan, hiru puntutan oinarrituta finkatu zituzten euren

helburuak: alde batetik, autode-terminazio eskubidearen alde lan egingo dutela adierazi zuten; bestalde, baldintza demokratikoen alde; eta, azkenik, herritarren bizi baldintzak hobetzearen alde lan egingo duen plataforma dela azaldu zuten aurkezpenean.

### SINADURAK BATUKO DITUZTE

Plataforma hori hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko beharrezkoak dituzte herritarren sinadurak. Apirilaren 1etik 16ra batuko dituzte sinadurak udaletxean. 08:00etatik 14:00etara. Apirilaren 4an, berriz, "sinadura bilketa masiboa" egin nahi dute plataformako kideek. 19:00etatik 20:00etara izango da hori, udaletxean. Dena dela, nahikoa izango dute hogeit bat herritarren sinadurekin.

## LABUR

### Txotxongilo ikuskizuna bihar, zapatua, Olanen, Irrintzi taldearen eskutik

Datozen bi asteburuotan kultura ekitaldi bat baino gehiago izango dugu. Batetik, Irrintzi taldeak txotxongilo emanaldia egingo du bihar, zapatua, 18:00etan, Olanen. *Bakartxoren zapaldu zaharrak* ikuskizuna eskainiko dute. Apirilaren 4an, berriz, *Ordu esan beharko* izeneko antzezlan eskainiko digute Ramon Agirre eta Joxerra Senperen eskolako aretoan, 22:00etan.

### Nerabetasunaren gaineko hitzaldia egingo du Xabier Tapiak Herri Ikastetxean

Herri Ikastetxeak antolatutako hitzaldi sortarekin bukatzeko, nerabetasunaren gainean jardungo du Xabier Tapiak psikologoak datorren astelehenean, hilaren 31n. Aurreko astelehenean, hilaren 24an, zen egitekoa hitzaldi hori, baina atzeratu egin behar izan zuten. Nerabetasunak eragindako arazo eta aldaketan berri emango digu Tapiak asteleheneko berbalduan.

### Lau antzuolar ETBko 'Goenkale' telesailen ikusi ahal izango ditugu laster

Jesus Agirre, Gerbasio Legorburu, Jose Mari Larrea eta Julian Iparragirre antzuolarrek *Goenkale* telesail ezaguneko bi kapitulu-lutan parte hartu dute. Orain dela aste batzuk egin zuten grabazioa Miramongo estudioetan eta laster ikusi ahal izango ditugu 1.725. eta 1.726. kapituluetan, hain zuzen ere. Boga-boga taberna eta Arraldeko elkarteaz azalduko dira, txikitean.

**LEKY-BERRI  
MERENDEROA**

Janariak  
eta  
edariak

Tf. 943 76 60 94  
ANTZUOLA

**MUJIKA  
HARATEGIA**



**Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrak eta oilaskoak**

Kalebarren, 1.  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 64 34

**AITZ-GARBI**



**Pintxoak eta  
kazuelatxoak.  
Bazkariak eta afariak**

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51  
ANTZUOLA



KIROLA

# Herriko Paleta Txapelketa bihar, martxoak 29, hasiko dute

A.I.  
Izena emateko epea martxoaren 17ra arte luzatu zuten Olalde elkarteko arduradunek, eta azkenean hamalau bikotek eman dute izena Herriko Paleta Txapelketan. Bihar, zapatua, jokatuko dituzte lehendabiziko partiduak eta maiatzaren 17an finalak izango dira.

Bihar, zapatua, hasiko dute Herriko Paleta Txapelketa, eta zapatu goizero jokatuko dituzte partiduak, maiatzaren 17ra arte. Egun horretan jokatuko dituzte txapelketako finalak, herrian San Isidro eguna ospatuko den egunean, hain zuzen ere. Martxoaren 29an, apirilaren 5ean, 12an, 26an, maiatzaren 10ean eta 17an jokatuko dituzte partiduak. Aste Santuan eta Maiatzaren 1eko zubian ez dute partidurik jokatuko.

Hamalau bikotek hartuko dute parte; horietako sei bikote lehen mailan lehiatuko dira eta gainerakoak, bigarren mailan.

Hona hemen lehen mailan parte hartuko duten bikoteak: Azkarate-Jauregi, Biteri aita-



Biteri aita-semeek irabazi zuten iazko txapelketa, bigarren mailan.

semeak, Iturbe-Iraola, Toledo, Peñalba eta Muruamendiaraz-Acedo.

Bigarren mailan, berriz, honako zortzi bikote hauek hartuko dute parte: Rodríguez-

Azkarate, Martín-Bargiela, Mendizabal-Mendizabal, Almena-Acosta, Sánchez-Pagaldai, Peñalba-Manso, Gezalaga-Arregi eta Erlamiño-Errenteri bikoteek, hain zuzen ere.

LABUR

## Antzinako ezkontzen gaineko erakusketa jarriko dute datozen bi asteburuotan

Bihar, zapatua, zabalduko dute Olanen etxean garai bateko ezkontzen gaineko erakusketa; oraingo asteburuan eta hurrengoan egongo da ikusgai erakusketa hori, ohiko ordutegian, zapatuan eta domekan. Kutxa Fundazioaren erakusketa horren bidez antzina zelako ezkontzak egiten zituzten jakiteko aukera izango dugu.

## Gazte mailako gimnasia erritmikoko neskak bikain ibili ziren Bergaran

Gipuzkoako Txapelketako bigarren kanporaketa jokatuko zuten aurreko domekan gazte mailako gimnastek. Uxue Arregi lehenengo sailkatu zen, Maialen Toledo bigarren eta Iraitz Gastiain bosgarren. Alebinek eta benjaminen apirilaren 5ean dute txapelketa, Azkoitiko kiroldegian.

## Eskolako neska-mutikoen Korrika Txikia egingo dute datorren astean

Hurrengo egubakoitzean, apirilaren 4an, Korrika Txikia egingo dute neska-mutikoen, Errekalden hasita. Gero, txokolate-jana izango dute. Oraingoan ez da Antzuolatik pasatuko Korrika, baina bai Bergararik. Apirilaren 6an, domekan, iritsiko da Bergarara, eta hantxe egingo dute korrika antzuolarrek, San Antonio inguruan.

## Udalekuetan izena emateko epea zabaldu dute, umeendako eta begiraleendako

Uztailaren 1etik 17ra izango dira udalekuak. 5 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta daude; parte hartu nahi dutenek apirilaren 16ra arte dute izena emateko, udaletxean edo liburutegian. Bestalde, udalekuetarako begiraleak behar dituzte. Begirale izan nahi dutenek ere apirilaren 16ra arte eman dezakete izena.



## Muxika garaile, bigarren urtez

Domeka goizean jokatuko zuten gazteen mailako txirindularien Uzarragako Igoera. Caja Rural taldeko Asier Muxika txirindulari beasaindarrak irabazi zuen 70 kilometroko lasterketa (02:02:48), bigarren urtez jarraian. Iaz Muebles Ordizia taldean zebilen Asier Muxika. Ciclos Iturri taldeko Iban González izan zen bigarrena, bi segundora, eta 17 segundora sartu zen, hirugarren, Caja Rural taldeko Ruben Zabaleta. Taldeka ere Caja Rural taldea izan zen garaile Uzarragan. /A.I.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Martxoak 30

11:00: Antzuola-Eskolapioak (Gazteak)

PILOTA

Martxoak 29 (Udaberri Saria)

17:00: Olalde-Eskoriatza (Eskuz nag.)

EMAITZAK

FUTBOLA

Antzuola 4 Legazpi 3 (Erreg.)

Dunboa Eguzki 3 Antzuola 4 (Gazt.)

PILOTA

Udaberri Saria

Girizia II-Olalde (eskuz nag.) . . . 9-22

Olalde-Zumaiako (palet. nag.) . . . 35-32

# EGAÑA

Era guztietako arotz lanak


Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

# LARREA

TABERNA

Kalebarren 17  
ANTZUOLA



# Juan Cruz

ARGAZKIAK

Ezkontza erreportaiak  
Jaunartze erreportaiak  
Momentuko argazkiak

BITXITEGIA

Marrokineria  
Erlojuak, Bitxiak  
Opari gaiak

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA



# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko martxoaren 28a / 136. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Hamalau alegazio jaso dira arau subsidiarioak aldatzeko eskatuz

OXEL EROSTARBE

Elgetak datozen hamasei urteotan izango duen garapena zehazten duten arauak apirilerako onartuta egotea espero du Udalak. Herritarrek hamalau alegazio egin dizkiete Udalak proposatutako arau subsidiarioei. Udaleko arkitektoak horiek aztertzen dihardu.

Arau subsidiarioei herritarrek egindako hamalau alegazioen gaineko txostena egingo du datozen asteotan Udaleko arkitektoak. Horren ondoren, osoko bilkuran onartu beharko dituzte arau subsidiarioak. Udalak arauak onartuta, Diputazioak eman beharko die azken onarpena. Apirilean dena amaitzea espero du Udalak.

Egin diren hamalau alegazioetatik bederatzia euren lurretan arau subsidiarioek aurreikusten dituzten lur erabilpenekin ados ez dauden herritarrek egin dituzte. Herriko zenbait elkarte eta alderdik ere egin dituzte alegazioak. Mayak, gaztetxeak eta Elgeta Auzolanian taldeak eskatu dute Debagoieneko eskualde-egiturako lurraldearen zatiko plana onartu arte Elgetako arau sub-



GOIBEKOKALE

Arau subsidiarioetan etorkizuneko Elgeta zelakoa izango den ikusi dezakegu.

sidiarioen onarpena bertan behar geratzea. Mayak beste zenbait alegazio egin ditu: saneamendu plana egitea, poltsikoko telefonoendako antenak Azkonabetan

batzea, energiaren agentzia lokalajartzea, eta abar. Aralarrek ere egin du bere alegazioa: herritarren partaidetza ez dela behar den beste bultzatu esan du. Arauen

helburuetako bat partaidetza bultzatzea denez, erabakia atzeratzea eskatu dute. Ezindu Fisikoen Elkarteak ere egin du bere alegazioa, ezinduek dituzten beharrak kontuan hartzeko.

### ZATIKO PLANAREN EZTABAIDA ATZO

Osoko bilkuran Debagoieneko eskualde-egiturako lurraldearen zatiko plana zuten eztabaidagai atzo udal ordezkariak. Erabakia atzo gauean hartu zuten arren, Debagoieneko lurraldearen zatiko planari Elgetako Udalak bi alegazio jarriko dizkiola aurreratu dute astean Udaleko ordezkariak. Lehenengo alegazioak eskatzen du Sesto-Gaineko eremua etxebizitzarako lur izendatzea eta bigarrenak eskatzen du jarduera ekonomikorako lurra aurreikusten diren zazpi hektarea beharren zortzi hektarea gehi Ibur Errekakoak hartzea.

Oposizioko zinegotziek ere bazuten lurraldearen zatiko planaren gaineko iritzia. Asteon adierazi dutenez, Debagoieneko lurraldearen zatiko plana eta Elgetako arau subsidiarioak ez datoz bat zenbait puntutan. Osoko bilkuran horiek argitzea eskatzea zen euren asmoa.

## LABUR

### Alkatiak erungo dau apirillan 7xan Korrikako testigua

Korrikan aldeko Elgetako batzordekuak lanian jarraitzen dabe. Aurreko aste bukatu Korrikaren aldeko materiala saltzen jardun zeben eta herritarren erantzuna onartu izan dala esan doskue.

Herriko tabernetan daren salgai Korrika-laguntzaille izateko txartelak. Txartelak egindako dituenen oingo astian bihurtu dotse AEK-k laguntzailia dala esaten daben karmeta. Txartela egittiak 10 euro balio dau.

Korrikan aldeko batzordeak aurreratu dabenez, apirillan 7xan Epeleko aldatutako testigua erungo dabena Patxi Basauri alkati izango da. Lehenago be testigua erungo daku da alkati. Majo entrenau biharko dau Epeletik Kanpazarrerako aldapei aurre egiteko. Hemen egunian Korrika Txikixa eta txokolatadia be izango dira herriko umiedako. Gero Epelela juango gara elgetar danok, gure kilometrua egittera.

### Egoera fisikua eta sasoi hobetzeko ikastaro barrirak

Datozen hillabetiotan programa barrirak erungo ditue aurrera prestakuntza fisikuan eta aerobik zehar jarduten dabem. Apirilla eta maiatza artian erresistentzia kardio-baskularra eta tonifikazio orokorria jarduengo dabe. Ekaina eta utzaila artian, barriz, egoera fisikua eta sasoi hobetzeko ikastaro go da helburua. Horretarako aerobikeko teknikak eta dantza motak landuko ditue.

Astian zihar bi aukera daren honetan ekintzotan parte hartzeko: hain justu be astelehenetan eta eguztarenetan, 19:30etik 20:30era eta martitzenetan eta eguztarenetan, 20:00etatik 21:00etara. Baita batian eta bai bestian 15:30an izango da parte hartu behar dabenak ordaindu beharrik gabe. Izena Elgetako udalaren bitartean emon bihar da.

## HERRITARREN HITZA / Jabier Aranzeta • Irakaslea

### Madriren beste bagara

Aurreko martitzenian notizia pozgarritzat azekarren Egunerok, Madriren 200etik gora izan zirala Martxelo Otamendiren hitzaldixan. Elgetarrok be, 200 pertsonatik gorako "pueblo soberanua" ibilli giñan manifestaziñuan, "banda munizipala" bertan ez izan arren, ez aurrian eta ez atzian. Eta honek, zer pentsau emon dosta.

Pozgarrixa da Madriren berrehunetik gora "entramado"kuak izatia? Baiña sasoi baten hori baino dexente gehixau ziran. Nun ezkutau dira ba, horrek? Beste gauza batzutarako azkenengo egune-

tan ikusi dittugu ugari eta horrek bai emon dostala poza.

Irakeko gerria dala eta, hor ikusi dittugu azkenian gorrixak ei ziranak manifestaziñuan, barriri euren "pueblo soberanua" osatuz. Horrek ilusiñua eman dosku. Igual, hemendik aurrera, behin gorritzen hasitta, ziharo gorrittu eta barriri federalismua eta autodeterminaziñua eta holakouekin hasiko jakuz.



"Irakeko herritarren moduan, geuk be, eutsi egin bihar"

Barriri be "pueblo soberano" dotoria egingo dogu. "banda munizipal" eta guzti Borboia txakuraren sala bialdu.

Ene Jesus! Horrek ez dakitt, gorrittuko diran, baiña ni neu hasi naiz ametsetan. Egixa esan, gauzak dagozen moduan, nekez ikusten dittut Eibarren edo Ermuan sozialistak

ei diranak holako gorrittasunekin; igual horrek be sozialista izateari itxi eta sózialistia

izaten ikasi bihako dabe (oso da inportantia euskaraz eskribidu be egin bihar ez diran azeno horrek irakurtzia).

Bittartian, beste erremediorik ez dagoenez, guk be, Irakeko herritarren moduan eutsi egin bihako dotsagu. Eutsi Egunerok irakurtziari, eutsi entzuten dittugunak entzunda geure ideiei, eutsi ilegalak izan ala ez gustuko partiduan ibiltziari, eutsi izorrau samar bagaoz be bizitziari, eutsi pentsatzen doguna pentsatziari. Azken emaitza nolakua izango dan ez dago garbi baiña guk egin geinken gauza bakarra eustia da. EUTSI, BERAZ.



ELKARRIZKETA

DAVID PEÑALVER/OZKARBIKO PILOTARIA

“Zuri jantzita jokatzera amaitu da niretako”

O.E.

Zaila izango da David Peñalver berriro pilotan jokatzeko ikustea. Bihotz onekoa eta handia izatearren, *Maiz* deitzen diote eta haserrea agertzen duelako, *Elgetako Goñi*. Pilota utzi behar duela esan digu. Omenaldia merezi du.

Zelan ekin zenion pilotan jokatzeari?

Behin, plazan mutiko koa-drila bat geunden, eta Juan Luis Uberak esan zigun pilotako txapelketa bukatzen zenean txokolate-jana egoten zela. Pilotan jokatzera animatu gintuen. Txokolateagatik hasi ginela esan daiteke. Nestor García eta biok, behintzat, hola hasi ginen. Aurrerago, 11-12 urte nituela, jokatu nuen zuri jantzita lehenengoz. Aurrerago txapelketak jokatzeko hasi ginen: Debarroko Txapelketa, Eskola Arteko Txapelketa... 16 urte nitueanean lagunak futboleak hasi ziren. Nik pilota nuen gogoko, eta jokatzeko jarraitu nuen.

Beti jokatu izan duzu Ozkarbiko taldean.

Etxean egon eta kirola egiteko aukera ematen du Ozkarbik.



O.E.

Herrian kirola egiteko aukera hori izatea eskertzekoa da. **Pilota dela-eta duzun oroitzapen onena?**

Xabier Uberarekin batera Debarroko Txapelketa irabazi nuenekoa izango da onenetakoa. Lau t'erdiko oroitzapenak ere oso onak dira. Ez nuen ezer irabazi, baina jendeak beti animatzen nin-

duen. Morboa ere egoten zen. Jendea beti hurreratzen zen *Maiz* ikustera.

**Gertaera bereziak ere izango zenituen.**

Beti izaten dira horrelakoak. Adibidez, behin Azpeitira joan ginen jokatzera. Praka zuriak etxean ahaztu eta praka bakero beltzekin jokatu nuen.

**Hamar urteren ostean pilotari agur esango diozu.**

Adin batera helduta, ez dago 17 urterekin zegoen ilusioa. Partidu gutxi jokatzeko dira, lanak pilotari eman beharreko denbora murrizten duelako eta gazteak indartsu datozelako. Eskuek igarri egiten dute partidurik ez jokatzera. Eta lesioak

Motzean

**Juan Luis Ubera.**

Maisua. Gu aurrera ateratzen ahalegindu dena.

**Lau t'erdiko txapelketa.**

Jokatzeko modu onena. Gusturen ibili naizena.

**Aitor Elkor.**

Idoloa. Lortu duena mirestekoa da, ispilua izan da besteondako.

**Pilota.**

Kirol gustukoena. Lagunak egiteko aukera eman didan kirola.

**Eskerrak, nori.**

Ondoan egon direnei, nire izaera jasan dutenei eta lagundu didatenei.

izaten dira. Hasiara baten nire asmoa da zuri jantzita gehiago ez jokatzera, nahiz eta entrenatzen eta lagun artean jokatzeko jarraituko dudana.

**Agurrik egongo da?**

Polita izango litzateke. Hala ere, eskuetatik nahiko justu nabil eta horrek gertatu beharra eka-rriko lidake.

GAZTETXEA

Jende ugari eta giro aparta urteurrenean

O.E.

Gaztetxearen zazpigarren urteurrena dela-eta giro aparta bizi izan genuen aurreko zapatuan Elgetan. Eguerdian hasi zuten jaiak herriko gazteek, triki-txikiteo-arekin. Gero bazkaria izan zuten gaztetxe ondoko lautadan. Bapojan eta gero kontzertua zen eguneko hitzordu garrantzitsuenak. Inguruko herrietatik etorritako

ska-zaleek gaztetxea bete zuten *Ttak* eta *Cyprinidians* taldeak ikusteko. *Ska*-zaleek gustura entzun zuten bi taldeon musika.

Urtero moduan eguna luze joan zen gaztetxean batu zirendako. Eta bat baino gehiago eguzkiaren argiek harrapatu zuten bertan.

Asentzio Eguna ere badator, eta hori antolatzen jardungo dute gaztetxeok asteotan.



O.E.

Giro aparta egon zen gaztetxe ondoko lautadan egindako bazkarian.



Kopia be irabazi dabe Estampakuak

Zapatuan Kopako finala irabazi ostian, berriro be Eibarko Txapelketako onenak dirala erakutsi dabe Estampakuak. Partidua nahiko errez irabazi zeben eta Katu Kale ez zan inungo momentuan Estampa baiño hobia izan. Elgetarrak 62-34 irabazi zeben finala. Garaipen horrekin, hortan, Ligia eta Kopia irabazi ditte aurten Estampaciones Intxortak. /O.E.

LABUR

Denboraldiari ekin dio Xabier Aranguren

Martxoko lehenengo astean ekin zion Xabier Aranguren aurten denboraldiari. Hirugarren urtea du amateur mailan Debarrena taldeko txirrindulariak. Lasai ekin dio eta lasterketaz lasterketa joan gura du. Laudion, Asteasun, Oteitzan, Astillerosen, Villatuertan eta Lizarran jokatu-tako lasterketetan hartu du parte. Lehenengoan artean amaitzerik lortu ez duen arren, gustura dago lortutako postuekin. Denboraldia luzea da eta izango ditu hobetzeko aukerak. Zapatuan Itsasondoko lasterketan eta domekan Gorlan hartuko du parte.



Xabier Aranguren.



## ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

DYA sortu  
zenekoa,  
1983an

**A**urten beteko dira 20 urte Antzuolako DYA sortu zutela; oraingo astean inaugurazio eguneko argazkia ekarri dizuegu, 1983ko irailaren 22koa, hain zuzen ere.

Hona hemen argazkian azaltzen direnak. Lurrean, eserita: Monse Alonso eta Andoni Rodríguez.

Bigarren ilaran, ezkerretik eskumara: Araceli Carmona, Maria Anjeles Igartza (atzeraxeago), Jabi Etxaniz eta Juan Tomas Erostege.

Hirugarren ilaran: Mada Cuesta, Martin Etxeberriarteun, Mikel Muguruza eta Tomas Larrañaga.

Laugarren ilaran: Juan Mari Lakuntza, Jose Luis Lizarralde (atzerago), Maripi Laskurain eta Mireia Unamuno.

Azkeneko ilaran, ezkerretik eskumara: Jose Anjel Fernández, Alfredo García Miren Zubillaga, Norberto García, Maripi Jauregi eta Juan Antonio Losada.

Eta aldamenetako harmailetan, berriz, hona hauek agertzen dira.



Ezkerreko harmailan, behetik gora: Iñaki Alkorta, Mikel Iraeta, Santi Horrillo, Enrique Losada eta Olatz Altzelai. Eta eskumako harmailan: Luis Fernando Manzisidor eta Karlos Baleztenena.

Argazkia: Antzuolako DYA

## ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

ANTZUOLA

Uzarragako  
parrokia

**I**txura baten, ez da askorik aldatu Uzarragako parrokia. Jakinekola da, baina, zelan dabilen mugitzen lurra inguru horretan eta zenbat arazo izan dituzten -eta dituzten- auzotarrek. Argazkian elizaren alboan ageri den hilerriko horma, esaterako, hamaika aldiz berregin behar izan dute. Bi argazkiak ikusita, aldaketa nabarmenena da Elutsa baserria desagertu zela; 80ko hamarkadan jausi zen.



**1957** Urte hartan, hain justu, hasi ziren Uzarragara-ko errepidea egiten. Elutsa baserria ikusten dugu, parrokiaren azpiko aldean.



**2003** Elutsa baserria desagertuta dagoela ikusten dugu honako argazkian; 80ko hamarkadan jausi zen.



**Zumelaga**  
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



Urteaga 9  
BERGARA  
Tf. 943 76 18 45

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g.  
BERGARA  
943 76 05 09

**BERGARA**  
MARMOLERIA  
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta baimu enzimarak

Urarte 8 BERGARA  
943 76 11 99 / 14 47.  
Faxa: 943 76 04 77



**BAUSCH  
& LOMB**

**FreshVision pack**  
berria daukazu:  
kaxa bi Bausch &  
Lomb hieko lenteak  
(Soflens Comfort,  
Soflens 38, Soflens  
66 Toric) eta hiru  
pote Renu Multiplus  
240 mlko formatu  
berria.



**Eskaintza berezia**  
FreshVision  
pack bakoitzeko,  
agenda  
elektroniko  
bat opari



Eskaintzaren helburua 2003/5/31 arte

R.P.S. N° 104/99 L.L.G.

# MULTIOPTICAS


Ibargarai 15 • Tel. 943 76 15 75 • BERGARA



## X U X U

**Narrua  
Bakeroak  
36-54 tailak**

SAN PEDRO 14  
TEL.943 76 07 55



**Udaberria eta uda Xuxun**



Corsa **Edition** berria  
Ekipamendu eta aurrezki eksklusiboak



Martxoan, Corsa deskontuarekin  
Gehienez **2.400€**



Opel EDITION gamak oso ekipamendu eksklusiboa eta 2.400€ eurorainoko deskontua eskaintzen dizkizu Agila, Corsa, Astra eta Zafira autoetan.

Zatoz lehenbailehen zure Opel kontzesionariora.

Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

Sustapen hau baliozkoa da Penintsulan eta Balear Uharteetan, stock-ean dauden autoendako, hil bukaerara arte. Deskontua, Corsa Diesel gamak kalkulatu.

**Giauto Bergara**

Kontzesionario ofiziala:

Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. BERGARA

[www.giauto.es](http://www.giauto.es)